Lapurdum
Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques | Revista de estudios vascos | Basque studies review

11 | 2006
Numéro XI

Adéma-Zaldubiren hitzaldi, artikulu eta kantu zenbait

Xabier Altzibar

Édition électronique
URL : http://journals.openedition.org/lapurdum/210
DOI : 10.4000/lapurdum.210
ISSN : 1965-0655

Éditeur
IKER

Édition imprimée
Date de publication : 1 novembre 2006
Pagination : 7-39
ISBN : 978-2-86781-474-7
ISSN : 1273-3830

Référence électronique
Xabier Altzibar, « Adéma-Zaldubiren hitzaldi, artikulu eta kantu zenbait », *Lapurdum* [Linean], 11 | 2006, Sarean emana----an 01 avril 2008, kontsultatu 19 avril 2019. URL : http://journals.openedition.org/lapurdum/210 ; DOI : 10.4000/lapurdum.210

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 7

Adéma-Zaldubiren hitzaldi, artikulu eta kantu zenbait

Xabier ALTZIBAR
Euskal Filologia. UPV-EHU.
josejavier.alcibar@ehu.es

1. Gratien Adéma *Zalduby* apezak (1828-1907) bere poesiagatik irabazi ditu euskal literaturan duen tokia eta euskaldunen ezagutza. Baina hitz laxozko idazle ere izan zen. Liburuska batzuk, laburrak nahiz luzexagoak argitara zituen: bi, Lurdeko Ama Birjinaren agertze eta mirakuiluak kontatzen dituztenak, beilariendako kantika eta otoitzekin osatuak (Baiona, 1875 eta 1877). Daranatzen arabera (*RIEV* 2, 1908:122-123) erreboteko jokoaz eta Aldudez liburuska bana ere argitara zituen, bai eta *Les Traditions du Pays basque* hitzaldia (Pau, 1887). Ikaslan edo azterlan, hitzaldi eta artikuluak bertzalde, gehienak *Eskualduna* kazetan: *Art Poétique basque* neurkera tratatua (*Eskualduna*n atalka,1899; berrargit., *Lapurdum*, III, 1998, 77-101) eta hemen berrargitaratzen ditugun hitzaldi eta artikuluak. Izan ere, egilea hilez geroztik, joan den ia ehun urtean hitzaldi eta artikulu hauek ez dute berriz argirik ikusi, bat edo bestek izan ezik, eta aipatuak ere ez dira ia. Hortakotz eskaintzen ditugu, ezagutzea merezi dutelakoan, bai eta egileari omenaldi gisa, haren heriotzaren ehungarren urte-mugaren karietara.

2. Hona beraz Zaldubiren 11 lan, generoa eta kronologia irizpidetzat hartuz ondoko hurrenkeran emanen ditugunak: lehenik bi hitzaldi, bata; Atharratzeko kolegio bateko ikaslei zuzendua 1887an, Euskal Herriko tradizioari buruz; bertzea, 1903an Eskualzaleen Biltzar barnean buruzagi gisa eginikoa. Ondotik, 7 artikulu, gai eta molde askotarikoak: Joanategiren liburu argitaraberriari eta oro har euskal liburuei buruzko iritzi artikulu bat ("Bibliographie", 1890); kronika moduko artikuluak (adib. Donibane Lohitzuneko euskal bestei, edo 1896 eta 1897ko Donibaneko erreboteko pilota partidei buruzkoak); informazio eta azalpenezkoak ("Eskual-herriko eliza bestak", 1899); Kaskoina pilotari ospetsuaren gertaldi baten kontakizuna, laborariendako bihotz altxagarri (1896); eta euskara-japoniera sinonimiari buruzko azterlan edo bitxikeria jakingarria, zientzi asmorik gabekoa, *Semaine de Bayonne* kazetan 1906an agertarazia. Azkenik, Zaldubiren kantu bat eta bi kopla eransten ditugu, zeren, hilda gero haren ondokoek edo hurbilekoek hari egotziak diren arren, egilearen poesia bildumetan ez baitira agertzen.

3. Bizpahiru ohar baizik ez, eskaintzen ditugun idazlanen inguruan. Lehenik, Zaldubiren gai, ideia, zaletasun eta arrenkura nagusietariko batzuk agertzen direla, bereziki euskal tradizioa edo tradizioko gauzak fermuki atxiki beharra (hark edo lege zaharreko tradiziozaleek ulertzen zuten erara). Haren arabera euskara eta

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 8

erlijioa elkarren lagun eta begirale zirenez, euskarazko liburu eta kazeta "onak" sustatu behar ziren eta bereziki euskararen erabilera. Ezagun da Zaldubi euskararen gizarte egoeraz kezkatua zela, batik bat Iparraldekoaz. Gero, erreboteko jokoa zeukan tradizio jatorrekotzat, ez orotan modan zegoen bleka.

Bigarrenik, idatziak izan ziren urteetako giroa eta gertakariak edo testuingurua oso aintzat hartu behar dira. Adibidez, erreboteko joko horri dagokionez, zenbait tradizionalisten eginahalak —esaterako Goienetxe Donibane Lohitzuneko auzapezarenak 1897ko Euskal Bestetan—, hura blekaren gainetik ezartzeko. Edo, 1903ko Eskualzaleen Bilzarreko hitzaldiaz den bezainbatean, apezei katixima eskuaraz irakasteko debekuaren eragina. Orobat, euskara-japoniera sinonimia ustezkoari buruzko kasuan, japonierarekiko balizko kidetasunak sortarazi jakinguraren berrindartzea 1905ko gerlaren ondotik; Zaldubiren azterlana G. Lacomberen artikuluaren ildo beretik abiatzen da ("La langue Basque et le Japonais", *Eskualdun Ona* 24, 1905-6-23).

Gero, egilearen datu autobiografiko batzuk ageri dira: Déroulède politikari eta poetarekiko harremana, edo Kaskoinarekikoa —Hazparnen bikario zenean—, edo Mugabure Tokioko artxapezpikuarekiko adiskidetasuna; egilearen pilota-, mendi- eta oihanzaletasuna; edo —Atharratzen bizi zelarik— inguruak poeta hertsiki mugatzen zuelako sentipena. Azkenik, baina ez gutienik, Zaldubi oso idazle landua ageri da euskaraz ez ezik frantsesez ere, hitz neurtuz ez ezik lañoz ere mintzaira eta idaztankera bere-bereak dituena.

4. Zaldubik etengabe landu ohi zuen bere idazlanen testua. Hortaz, zenbait kasutan edizio elkarren segidakoak eta hein bat desberdinak ditugu; horietan guk ahalaz azkena hartzen dugu aintzat. Adib. "Eskual-herriko eliza bestak" artikuluak baditu hiru eskualdi (*Eskualduna* 1899 eta 1908koa, *RIEV* 1908koa), azken biak egilea hilda gero atereak eta oso antzekoak, nahiz agian argitaratzaileen (Hiriart-Urruti, Daranatz) edo beste norbaiten ukitu batzuekin.

Eskualdunak bere ortografian agertarazi zituen Zaldubiren euskarazko idazlanak; ortografia hori orduan modernoa zen eta gure egungoaren eite handikoa. Guk euskarazko idazlanok berriz argitaratzean egungo ortografia batuan ezarri ditugu, ondoko aldaketak eginez: *mb—> nb*; *ch—> x*; *tch—> tx*; *x—> ts*; *ichil ichila—> ixil-ixila*. Y- hitz batzuetan ageri dena (*Yaunak*, *Yakintsun*) bere horretan utzi dugu kasu bakan horietan. Dieresiak kendu ditugu: *Baïgorri—> Baigorri; mintzaïa—> mintzaia*.

Ortografia egunekotu dugu orobat hitz larri eta xeheei dagokienez: *Eskuara—> eskuara*; *Eskualdunen—> eskualdunen; Mairuen—> mairuen; Jaun Aphezpikua—> jaun aphezpikua; Prefet—> prefet; Fedeak—> fedeak; Eliza besta—> eliza besta.* Halaber hitzen lotura edo bereizkuntzari datxekiola: *1903 ko—> 1903ko; hitzaldia—> hitzaldia; gora beheren—> gorabeheren; bizi modu—> bizimodu; duda muda—> duda-muda; Irri egin garri—> Irri egingarri; ber berean—> berberean; zer nahi—> zernahi; nor nahik—> nornahik; bihotz-minetan—> bihotzminetan; edo zoin—> edozoin; plaza gizon—> plazagizon; jar lekhu—> jarlekhu; pare gabea—> paregabea.* Halere, hitz bat utzi dugu zegoen-zegoenean: *Eskual-herria.*

H-ri datxekiola, ordea, utzi dugu hasierakoa (*bauzo, harmadako*), bokal artekoa (*zohaz*) bai eta kontsonante ondokoa (*auzaphezak, ukho, ethorkiaren* baina *ikusi* -ohi duenez-).

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 9

Azkenik, *Eskualduna*ko testuaren huts apurrak zuzendu ditugu, batzuk bederen, idazlan bakoitzaren zolan forma makurrak —gure ustez— aipatuz ("Testuak dio:…"); edo irakurleari dudazko formak ohartaraziz parentesi arteko *sic* baten bidez.

HITZALDIAK

1. Les Traditions du Pays Basque. Discours prononcé par M. le Chanoine Adéma (Distribution solennelle des Prix de l'Institution Saint-François, de Mauléon, le 18 août 1887). Daranatzen arabera 1887an Pauen argitaratua, Vignancour inprimatzailea baitan (*RIEV* 2, 1908:123). 24 urte berantago, *Eskualduna*n: 1284/1285, 1911-11-11/24. Guk *Eskualduna*ko testua berrargitaratzen dugu.

(I)

Messieurs,

Chers jeunes gens,

Je me souviens qu'il y a quarante ans, je faisais aussi ma rhétorique. Ce souvenir évoque en moi tout un petit et heureux monde disparu où je cherche ma place d'autrefois, et où je voudrais revivre à vos joies d'aujourd'hui…

J'ai demandé à mon vieux butin littéraire quelles fleurs je mêlerais en ce moment à vos fleurs… Je n'ai retrouvé que des restes flétris dans une poussière faite d'oublis.

Cependant, j'ai tressailli à un appel devant lequel mon amitié et ma vénération n'avaient qu'à s'incliner et j'ai osé accepter l'honneur de glorifier vos palmes, moi l'amateur des bois et des montagnes.

Demandez-moi plutôt de vous dire, en quelques durs et sauvages accents, les âpres merveilles qui m'attirent souvent vers des ravins sans fond et des rocs amoncelés.

Demandez-moi encore comment il se fait que même dans la plus riante vallée, où m'environnent de si poétiques aspects, c'est le terre-à-terre d'une vie aux horizons étroits qui est devenu mon élément régulier.

Qu'ai-je dit?…Ce n'est pas non plus cela. Je suis un pasteur d'âmes… Oh! que le soin des âmes habitue le prêtre à regarder haut! Volontiers je suis venu regarder et dire combien mieux ici sont cultivées les vôtres. *Trahit sua quemque voluptas*.

**

"Mes beaux jeunes hommes" tel était le salut répété qu'un grand Evêque de Tulle adressait dans ses discours à la légion des zouaves pontificaux de Rome.

Je puis bien, mes chers enfants, adopter les mêmes termes en m'adressant à vous. N'êtes-vous pas aussi beaux à mes yeux, de cette beauté de vos jeunes âmes qui rayonne sur vos fronts purs et dans vos francs et gais regards? Mais vous êtes superbes encore de la beauté de ce sang basque ou béarnais qui coule si généreux et si noble dans vos veines. Oh! qu'il est heureux de savoir combien je dis vrai, ce père tendre et doux qui vous couve en ce moment de ses regards et qui dans le

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 10

cours de cette année scolaire vous a fait grandir sous sa main en toute sorte de nobles accroissements!

Mes beaux jeunes hommes, souvenez-vous que noblesse oblige. Ne dégénérez jamais!

Sous les ombres tranquilles de cette maison, avec les maîtres distingués qui vous dirigent, vos âmes, vos cœurs, vos intelligences ont été dignement façonnés au culte de tout ce qui est divin et élevé, au culte de tout ce qui est beau. Et moi, je viens, à mon tour vous proposer et vous recommander le culte du vieux: oui, le culte ennoblissant de toutes les vieilles et saines traditions de votre race et de votre pays.

Souvenons-nous, avant tout, des anciens et des ancêtres vénérés dont nous sommes issus. Notre vie doit reproduire leur vie et aussi leur honneur. Oui l'honneur, cette grande chose qui ne devrait jamais ni mourir ni déchoir. Ayons un soin religieux des archives d'honneur de nos familles, vénérons-en surtout les flambeaux les plus vieillis.

Dans les temps passés notre pays n'a pas manqué d'hommes qui l'ont illustré. Quelle tristesse! Beaucoup d'entre nous ignorent leur histoire et négligent de lire les documents où se trouvent narrés leurs exploits! Honneur impérissable, honneur à tous ces vaillants, qui nous ont précédé dans le bien! suivons leurs traces lumineuses.

**

Ici même où nous sommes en ce moment réunis, représentons-nous ces hommes de prière et de science dont les vertus illuminèrent autrefois ces lieux. Ils dorment là sous ces parvis renouvelés, et leurs cendres refroidies sous de nombreuses années de profanation et d'oubli, ont sans doute tressailli à la vue de leur monastère redevenu un sanctuaire, le sanctuaire d'un enseignement aux saines, aux grandes et pieuses traditions.

Quand je parcours les avenues de cette demeure, il me semble entendre encore les pas traînants mais légers du vénérable abbé Bordachar. L'accent martelé de sa parole fine et spirituelle résonne à mes oreilles; je vois l'étincelle qui jaillisait de son regard enflammé par des pensées de foi, de science et de patriotisme basque… D'ici même, il étendait son action à des lointains prodigieux. De royales intimités en faisaient leur confident et leur conseil, un grand Cardinal l'admettait dans sa familiarité, des orateurs renommés dans nos tribunes politiques se reposaient et s'éclairaient à la fois au contact de son amitié. Des âmes inspirées du ciel le recherchaient comme leur agent nécessaire et leur guide, dans les entreprises les plus merveilleuses.

Mais son œuvre de prédilection, l'œuvre où finalement il usa son activité et sa vie, sa grande œuvre fut celle de cette maison et de cette institution. Et voilà que cette œuvre lui survit, embellie et prospère dans les dignes mains de celui qu'il s'était dès longtemps associé.

Il est à regretter qu'une existence aussi pleine, aussi féconde et aussi extraordinaire n'ait pas encore trouvé son historien. C'est toujours ainsi que se sont éteintes dans notre pays beaucoup d'honorables mémoires.

**

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 11

Partout ailleurs, j'admire, Messieurs, la lutte soutenue contre toute destruction et les efforts que l'on fait pour arracher à la mort tout ce qui peut lui être enlevé.

L'histoire et les monuments sont les formes ordinaires par lesquelles on se survit dans la postérité. Mais il y a bien d'autres éléments qui assurent cette prolongation de la vie, en chaque grande branche de l'immense famille humaine…Ce sont les vieilles mœurs, les vieux usages, les antiques costumes, les libertés et par dessus tout la religion et la langue conservées en dépit de tout envahissement étranger, en dépit même de toute servitude.

Ah! voilà les vieux trésors qu'il nous faut à tout prix, avec acharnement, garder et défendre; ce culte des vieilles choses, est, croyez-moi, une excellente sauvegarde des biens nouveaux.

Le nouveau aussi a du bon. Le christianisme, quand il apparut au vieux monde, fut une bien grande mais splendide nouveauté. C'est bien par lui que fut renouvelée la terre entière. Et depuis il est toujours la résurrection et la vie. Il est le seul élément qui puisse renouveler la jeunesse des peuples vieillis. En dehors de cette merveille je ne vois guère que des nouveautés caduques, des nouveautés de destruction, et des rénovations éphémères.

Attention à cet envahissement du nouveau qui vient nous envelopper de toutes parts. Regardons bien quel est le vent qui amène vers nous cette poussière ! Église de Dieu, éclairez-nous dans ces voies nouvelles où nous nous égarerions sans vous !

Et même dans le vieux, Messieurs, il y a à prendre et à laisser. Il y a à éliminer les vieilles erreurs du paganisme, les vices et la corruption de l'humanité déchue, les ténèbres de l'iniquité de l'ancien monde. Saint-Paul nous les désigne, je crois, sous les noms génériques de vieil homme, de vieux levain.

Mes beaux jeunes hommes, vous avez dans votre éducation catholique un préservatif incomparable pour traverser sainement ces parages séduisants de l'histoire et des lettres de l'antiquité.

**

(II: Suite et fin)

Une question des classiques fut jadis soulevée, sur les dangers et l'influence d'un enseignement où se mêlerait l'étude des chefs-d'oeuvre de la littérature païenne. Je n'ai garde de prendre parti dans cette discussion; je m'arrête seulement à cette seule pensée.

Quand Jésus-Christ sortit de l'obscurité de Nazareth, quand ses envoyés absolument illettrés entreprirent de convertir le monde à l'austère loi de l'Évangile, ce monde était déjà éclairé par tout ce que la civilisation a de plus resplendissant; les belles lettres, l'éloquence, la philosophie, le luxe de la vie, et tout cela à un degré de perfection ou de raffinement qui ne sera plus égalé. C'était l'éblouissant siècle d'Auguste. Les esprits les plus cultivés florissaient nombreux, sur le passage de ces pauvres prédicateurs de Galilée. S. Paul à Athènes et St-Pierre à Rome trouvaient devant eux l'élite des orateurs et des savants.

Tant mieux, chers élèves, que les chefs-d'œuvre que vous étudiez soient de ce temps là et qu'il soit démontré de quels puissants et brillants obstacles l'Évangile sut triompher.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 12

J'ajoute que si la langue de Platon et de Démosthène, la langue de Cicéron et de Virgile étaient un jour bannies des programmes de l'enseignement, ce serait l'honneur des écoles catholiques de les cultiver encore, non seulement à titre de démonstration des victoires évangéliques mais aussi comme moyen indispensable et patriotique d'apprendre, par exemple, le français.

Et que nous importent à nous les visées retrogrades et les calculs ignorants des réformateurs du jour!…Ce sont les moines du moyen-âge qui sauvèrent les belles lettres de l'antiquité savante; c'est le clergé qui devra peut-être les conserver dans l'avenir.

Que vous dirai-je des beautés de la littérature chrétienne?…et de ces Pères de l'Église, et de ces doctrines qui ont jeté un si vif éclat à travers les siècles. Que vous dirai-je de notre grand siècle à nous? Mais vos maîtres, ici même, vous ont déjà fait admirer ces splendeurs déjà vieilles, et vous êtes, sans que je vous en parle, en très bon lieu, pour être nourris de ces aliments exquis et substantiels de l'intelligence et de la foi.

**

J'ai hâte de vous entretenir d'autres vieilles et magnifiques choses.

Ce sont les antiques traditions et l'admirable langage de nos ancêtres basques.

Le peuple basque, ses origines, ses migrations, ses habitudes et surtout sa langue sont en ce moment l'objet de la curiosité, des études et de l'étonnement de toute l'Europe savante. Oui, à cette heure, où l'on dit que nous allons disparaître, nous sommes la race la plus étudiée de l'Univers.

Il y a un demi siècle, Guillaume de Humboldt, le grand etnographe, l'illustre philologue allemand, et l'explorateur le plus sagace qui ait jamais paru, révéla sur nos origines et notre antiquité des découvertes surprenantes. A sa suite toute une pléiade de chercheurs et de linguistes, s'est mise en mouvement. A Paris, à Londres, à Cologne, à Vienne, c'est parmi les hommes de lettres et de haute science, à qui scrutera le plus les mystères de notre race, et à qui apprendra le mieux notre langue. J'ai naguère lu quelque part qu'un vœu aurait été émis par ces enthousiastes de notre nationalité, tendant à établir notre autonomie, pour nous préserver d'une plus grande altération sinon d'une complète et imminente extinction. En d'autres termes, on voudrait nous conserver, comme un prodigieux monument historique.

Nous sommes un peuple sans presque pas d'histoire, et rares sont les monuments de notre passé. Mais l'ancienne géographie est dès les origines de l'humanité, un peu partout parsemée de noms basques.

Des livres et des revues scientifiques surgissent de toutes parts, nous honorant de leur admiration, et nous nous résignerions à disparaître!

M. Henry O'Shea s'élève jusqu'au lyrisme, dans son récent ouvrage: *La maison basque*. Ah! beaucoup d'entre nous ne se doutaient pas que nos vieilles habitations labourdines fussent si admirables, comparées surtout à ces prosaïques constructions, à la vulgaire symétrie, et dépourvues de cachet et dont nous avons préféré emprunter les formes aux étrangers.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 13

Un éminent généalogiste, un profond érudit de nos archives, un compulseur infatigable de tout ce qui peut éclairer notre histoire, M. de Jaurgain se consacre depuis quelques années à des études aussi curieuses que savantes sur les hommes et les choses qui ont illustré notre pays. C'est un vrai basque celui-là.

M. Paul Labrouche, archiviste distingué de l'école de Chartes, et aussi notre compatriote, a eu le même dessein et le même but, quand il a fondé l'intéressante *Revue des Basses-Pyrénées*.

Nous devons encore être reconnaissants à M. l'abbé Haristoy qui, dans ses recherches sur le Pays Basque, nous a donné tant de renseignements d'une utilité incontestable.

En Allemagne il se publie depuis quelque temps un journal basque intitulé *Euskuara* (sic). En Espagne il y a l'*Irurak-bat, La Revista Eskuara* et d'autres encore.

Ici, nous avons au moins notre *Eskualduna* lui surtout si respectueux de nos traditions et de notre Foi.

Je ne puis les citer tous.

Et dire que même parmi les dirigeants de nos populations euskariennes, il en est qui ne prennent intérêt à rien de tout cela!

…En vérité ce ne peuvent être que des cœurs atrophiés, et des intelligences dépourvues de toute idée patriotique et de tout noble ressort.

Honneur aux Ossalois du Béarn, peut-être nos anciens congénères. Eux au moins, comme les Basques d'Espagne, ont conservé le pittoresque et gracieux costume de leurs ancêtres. Mais à nous, Basques de France, il nous reste seulement ce béret que nos aïeux n'ôtaient que devant Dieu et devant leurs Dames; jamais en présence même du Roi. Quant aux basquaises françaises, elles gardent à peine encore un simulacre de mesquin mouchoir dont la forme va sans cesse se détériorant. Comment reconnaître le Basque sous cette blouse, livrée de l'ignoble servage, et sous ces autres lourds accoutrements de gascons, dépourvus de tout cachet national, et qui ne saurait s'harmoniser avec les tailles sveltes, et les allures si naturellement fières et nobles des Basques.

Au moins, nous avons encore, même en France nos antiques fêtes basques; nos fêtes si belles qui n'ont leur raison d'être que dans la Religion; nos fêtes dont l'allégresse ne saurait être légitime qu'à la suite des pompes de l'église.

Oui, ce sont des étrangers, voire des dissidents de notre Religion, qui, étonnés de nous voir déchus de nos mœurs traditionnelles, nous reprochent ces changements et ces concessions faites aux modes exotiques.

Soyons cependant fiers encore de notre jeu de balle, le jeu le plus noble qui ait jamais caractérisé un peuple libre et une race saine.

Agilité, souplesse, vigueur, adresse, coup d'œil prompt et intelligent; tout est en jeu dans ce viril exercice, et vraiment je prends en pitié toute notre gymnastique moderne quand je la compare à notre plus simple partie de rebot…Aimez ce jeu, beaux jeunes hommes, et honorez-vous en le cultivant, en y excellant, et surtout en le préférant aux délassements énervants et efféminés.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 14

Il me reste enfin à vous parler de notre langue basque, non point pour vous en décrire le mécanisme admirable et la savante beauté, mais pour vous enciter à la cultiver, chacun selon les règles de vos dialectes respectifs, et à apporter à cette culture un soin et une émulation enfammés d'orgueil patriotique.

Je vous ai déjà dit le cas que font de cette étude, les savants des instituts européens. N'ayez pas honte d'une pareille gloire qui rejaillit sur vous et sur votre nationalité.

Il y a quelques jours, le docteur Hugo Schuchardt, de l'Université de Graz, en Autriche, et membre correspondant de l'insigne académie de Vienne, m'a adressé une lettre en Beau Basque, fort correct. Si je vous la lisais, vous seriez émerveillés de voir à quel point on estime là bas notre idiome *

Voilà des exemples qui devraient confondre ceux d'entre nous qui négligent cette langue.

Nous vivons, je le sais bien, à une époque où le niveau égalitaire voudrait *uniformiser* toutes choses. Or si ce Tarquin moderne faisait un jour régner sa loi, en vérité, il ne resterait au monde qu'à mourir d'ennui.

Descendants des Cantabres indomptés, regardons qui nous sommes, et relevons la tête. Arrière ceux dont le servilisme et l'abjecte[1] platitude s'accommodent de tout ce qui ruine ou supplante nos antiques traditions. Arrière tous ceux qui désapprennent ou renient la langue basque! Arrière même les indifférents et les tièdes!…Honneur aux Basques qui s'honorent en se montrant basques!

Notre langue, Messieurs, n'est pas seulement un trésor et une gloire dont nous devons être jaloux; elle est aussi une vieille compagne de notre foi; elle en a été souvent la gardienne incorruptible. Aujourd'hui plus que jamais elle est la vie et le palladium de notre nationalité.

Messieurs, défendons nos populations jadis si fières de leur vieille intégrité, défendons-les contre ce *modernisme* qui abaisse et avilit leur caractère. Veillons à ce que les enfants de notre race ne dégénèrent et ne se dégradent par l'abandon ou l'ignorance de la langue basque.

Nous-même qui sommes au rang de ceux qui doivent l'exemple, employons avec amour notre idiome euskarien, le plus souvent que nous le pourrons, surtout dans nos entretiens entre seuls basques. Saluons-nous en basque. Écrivons en basque, encourageons tout ce qui se publie à l'honneur de cette noble langue.

Et pourquoi, afin de nous soutenir dans ces résolutions, ne porterions-nous pas, dans la suite, un signe de ralliement.**

Loin de moi, mes beaux jeunes hommes, la pensée de vous inspirer ce feu sacré au préjudice des autres belles lettres qui sont ici la loi de votre enseignement; mais croyez-moi cette langue que vous avez déjà apprise avant toute autre, par cela même qu'elle est une langue savante, ne nuira en rien à vos progrès dans tout ce

---

* - Sur la demande d'un grand nombre d'auditeurs, M. le président a lu cette lettre, aux applaudissements de tous les Basques présents à cette séance.

1 - Objecte.

** - Depuis que ce discours a été prononcé, plusieurs ont pensé à une petite décoration, signe de ralliement pour les adhérents à ces conseils. Ce serait, par exemple, un petit gland en orfèvrerie, ou en soie verte, suspendu à un anneau d'épingle.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 15

que vous avez à apprendre par ailleurs. Une aptitude en ravive plusieurs, et un flambeau sert souvent à en allumer d'autres.

Messieurs les Béarnais, j'en veux vraiment à mon incompétence qui m'empêche de vous parler de votre idiome si gracieux, si poétique et si harmonieux. Ce que j'ai dit aux basques, je vous le dis aussi; soutenez l'honneur de votre béarnais, conservez ces bonnes et vieilles traditions qui ressemblent tant aux nôtres. Conservons-nous tous purs et incorruptibles, dans la même Foi et dans le même honneur!

A plusieurs reprises l'orateur a été interrompu par des salves d'applaudissements.

2. Eskualzaleen bilzarrean, 1903ko buruilaren 10ean, Adema Zalduby kalonjeak, eta bilzarraren buruzagiak egin duen hitzaldia.
(*Eskualduna* 847, 1903-09-18).

Yaunak,

Bagare bilzarre huntan zonbeit eskualdun, gure eskuarari eta gure eskualduntasunari hein bat atxikiak.

Eder zaiku eskualdun izatea, eta hala garela, guziz gure mintzaiaz irakusterat ematea.

Eskuara da gure hizkuntza legezkoa, gure-gurea, ama bat bezala maite duguna. Eskuarak eta gure fedeak derakharkigute gure ohorerik handiena. Horiek gabe gauza guti gintezke, munduan hainbertze gurea balio ez duten mintzaietako jendeen artean.

Yakintsun handi direnek diote, oraiko jendeen mintzaietan eskuara dela zaharrena: Harrituak ere daude nola hizkuntza[1] bat hoin ederra, asmatua izan zen aspaldion iraganak diren mende zahar hetan, eta nola oraino guk dadukagun herri bakhar hautan.

Badu hiru mila urthe segurik, eskuara munduaren alderdi zaharrenetako mintzaia bide zela. Behinik behin Asian, Armendian, Gazpiako itsasoaren inguruetan, Iberia zahar orai Georgia daritzonaren lurrean. Han gaindika dire mendi batzu deitzen direnak Ararathe, Elburu, kasko guzia urthe osoan elhur duena, Gorazkoi, Gorazpe, Titigora, Handi.

Uren izenak oraino gehiago dire; huna zenbeit: Urmea, Ural, Uholga, Urdaba, Urup, Uraso, Sara, Salata, Ulumba, Kur, Kharats, Zoria, Iberur, Ibairi, Mandagora, Karape, Karagaitz, Kaikur, Kabura, Jatsarte, Ekhiur, Harridun, Gazpia, Erniur, Eder, d'Ihabea, Atzkur, Ardizkur, Ararur, Albur, Aral, eta holako bertze asko.

Eskuaraz deitzen diren herriak ez dire gutiago: Abara, Agara, Alapa, Aldu, Algerdi, Alzaz, Alzketa, Anzira, Aragona, Arhaitz, Ardatza, Ardibil, Argaitz, Arraga, Artza, Astara, Asurdi, Atalas, Atherria. A hortaz hasten diren izenetarik zenbeit bakhar dire horiek munduaren zokho hartakoak, oro aiphatu behar bagintu luzegi lohake denbora.

1 - Amikuntza.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 16

Espainia lehen Iberia zen deitzen, naski aixtian aiphatu dudan Iberri hartarik ethorririkako jendeek izen hori, eta Aragonarena ere Aragoari emanik. Hemen orai ez dugu irakustearen beharrik Iberi hortako mendi, ibai, aran eta herri gehienek beren izen zaharrak segurik eskuarak eta eskualdunek emanak zituztela.

Gauza bera erran diteke Frantziaren alde huntako hegal huntaz, nun baitire Baigorri (Bigorre), Atur (Adour), Eliberi (Auch), eta urrungo ere Illiberi (Le Narbonnais), Andura (La Sâone), Biithurri (Bourges) eta hainitz holako.

Izen eskuara horiek, egungo gure eskuararekin eman ginetzaken bezal-bezalako horiek, arabez eskualdunek emanak ziren Frantzia oraino sortzekoa zelarik, eta eskuara mintzo zen mende hetan. Uropeko oraiko mintzaien hazia oraino eraitekoa zen.

Eta zer! Hainbertze mende orai arteraino iraun duen ondoan…hainbertze munduko nahasmendu, gerla, eta jendeen arteko itzulika guzien erditik, hain eder eta berberarik athera izan den ondoan, gure eskuara hau behar dela galdu eta suntsitu, gure oraiko denbora labur hautan! eta ahalke hori behar dugula guk iretsi! Ez balinba!…Akhabo beraz eskualdunen ohorea: ez balinba!…Akhabo beraz eskualdun jendea bera: ez balinba!

Ondikoz hargatik egia baita, gure eskuara galduz, eskualdunak ttikituz goazi, nork nahik jauzi egiten du jadanik gure gainera. Jadanik Alabako herria, eskuara utzirikan, erdaldun aphal jarria da. Ai nola bozkaria gintezken xutik baladi oraino!

Nabarra ere ilhunpe beretarat erortzen ari da: erdalduna bere eremurik handienean nausitu zaio. Altxa hadi Nabarra, iharros atzik hire gatheak, Nabasko aspaldiko gatheak!

Hala-hala loriagarri da ikustea, nola gipuzkoarrak eta bereziki bizkaitarrak bermatzen diren beren eskuararen oso, eta menturaz berexegi, atxikitzerat. Don Resurrekzione Azkue apheza bezalako eskualzale khartsu bat behar liteke gure zazpi eskualherrietarik bakhotxean. Beinan (sic) nun dire Bizkaiak bezalako diruak eman detzazketenak, eskuararen begiratzeko eta irakutsarazteko?

Frantzia alde huntan, ez gaude segur estakururik gabe. Bai Laphurdin, bai Basanabarren, bai Ziberoan, eskuarak oraino gaina daduka, guziz jende xehearen artean. Hiru herri alde horietan, ez da bat, eskuara galdua duenik; bai, bainan hiruetan galtzen ari.

Dela burdin bide; dela jende arrotzekilako nahasteka; dela errient kaskoin eskuararik ez dakitenen eta eskuara hastio dutenen eskola; dela asko gazte frantses agertu nahiagoen ergelkeria;…gure hemengo eskuara ere badoha: Frantsesak ithotzen ari du: eta oraino nolako frantsesak! Irri egingarri baita, jende eskolatuez kanpo gure eskualherrietan derabilan frantsesa; eta ahalkegarri baita, hainitzek eskuaraz mintzatzeko duten ahalkea.

Orai bereziki badugu Frantzia aldeko Eskual herri huntan errenkura handiagorik.

Huntaratuak gare[2], nun gure herri aldetako arrotz kargudun batek debekatu baitiote aphezeri, eskuara beizik ez dakiteneri eskuaraz mintzatzea…Lehengo libertate, zuzen guzien kontra ebatsi dauzkigutenen ondotik, ez ginuen, arabez, bertze deusen beharrik, Frantziako legeez nahi eta behar baino gehiago tinkatuak izateko. Lirudi, Frantzia bera hastiarazi nahi leraukutela…

2 - Gure.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 17

Debeku hori hautsarazi beharrez, eskualzale aitun batzuek egin dituzte egin ahalak prefet bati buruz, ginakielarik guziek deus ez zezaketela ardiets halako gizon baten ganik. Eskuara elizetan haizu nahiaren nahiz, aphalik jarri ziren haren aintzinean, eta sobera umilki ere mintzatu haren balakatzeko. Hark aldiz lehenik elhe legun gero *ezetz* ilhun. Azkenekotz eza beizik ez zuten ardietsi, hobe baitziteken ez baliote hainbertze ohore eta agur egin zen bezalakoari.

Arren gu eskualzale gaduzkatelakoetarik hainitz ere, ez othe gare hobendun gure ahulkeriaz eta gure iraupen eskasaz? Lehenik su eta khar, gero ephel eta uzkur; ezin iraun hastean ginuen ekharritasunean: aurthen guziz denak behar gintezke sorkhan bilduak hemen aurkhitu, eskuarari egina zaion guduan, haren alde gure buruen agerian irakusteko.

Gan dire eiki denborak, gure eskuararen eta gure eskualdun aztura zaharren garbi eta oso mundu huntako jendaien artean begiratzea gatik, aiphu izan baitzen gizon jakintsun batzuen bilkhuran, eskualduneri beren berbertasunaren emaiteaz, berex beren gisa eta libro bizi zitezen, Andorreko Errepublikan bezala.

Orai da galdegintza, eian denbora laburrik barnean izanen den gehiago eskualdunik, eskuararik eta Eskualherririk…Guri dago horri ihardestea bilzar barne huntarik.

Gure eskuara debekuan ezarri nahi dutenek berek ohartarazten gaituzte, jadanik beren esklabotzat gaduzkatela zaphatu gogoak ederki…Ordu da bihur gaizkion laido horri, eta egin detzagun egin ahalak gure eskuara amari bizi berri baten emateko.

Hemendik aintzina, ez gaitezen mintza eskuaraz beizik, eskuara dakitenekin. Badakit ohitza hori ez zaiotela berehala errex izanen askori, eta nahitez eta uste gabe, erdararat lerraturen direla. Halere, huts hortarat ez erortzeko xede zina hartuz, *usu* usaia edo *usu-aria** laster hartua liteke eskualdunen artean bethi eskuaraz mintzatzeko. Batek berzea huts egitean ohartaraziz, hala nola edo kheinu batez, edo hobeki, eskuaraz erdarari pulliki ihardetsiz, usaia hori hobeki oraino finka liteke gure artean.

Hemendik aintzina, haurreri ttikitik eskuara, bereziki eskuara, irakutz (sic) dezotegun: ez sehirik har eskualdunik beizik, eta heieri ez utz eskuaraz beizik haurreri mintzatzea.

Zazpi edo zortzi urthetako haurreri, burasoek frantsesez ere edo españolez elhe egitea ez liteke gaizki.

Frantsesa edo española ez dugu batere arbuiatzen; on eta eder ere zaiku bi erdara horietarik batean bedere trebe izatea. Mintzaia bat baino hobe dire bia; hargatik guretzat bego bethi eskuara lehen eta nausi. Eskolak hor dire erdararen behar den bezala ikhasteko. Jende eskolatuen etxeez kanpo, eskola onetan beizik ez da ikhasten behar den bezalako frantsesik, ez españolik. Halere damurik errient kaskoin batzu igortzen baitauzkigute Eskualherrirat, ezen frantximant bilhakatzeak ez dio on hanbatik egiten eskualdunari.

Eskualdun haurrek, frantses katixima ikhasi behar badute, ikhas bezate; hargatik ez dadiela bihi bat izan eskuarazkoa ikhasi gabekorik, ez eta ere bere goiz-arratsetako othoitzak eskuaraz eginen ez dituenik.

* - Eskuarari arrotzek maileatu hitzak / Yakintsunek diote direla hainitzak.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 18

Eskualdun fededunek ez bezate ereman elizarat, liburu latin eta eskuararik beizik. Bainan, elizatik kanpo ere, liburu eskuarak behar litezke bai ixtoriozkoak, bai jostatzekoak, diren baino gehiago. Guri, orai hemen garen bezalako eskualzaleeri, lagoke liburu horien usu argitaraztea.

Berriketari edo kazeta eskuarak baditugu, bai Frantzian, bai Espainian: hoien irakurtzaile izan gaiten guziak, utziz hargatik bazterrerat eskualdunen fedeari laido egin lezoketenak.

Fedearen hedariaren guthunak ere eskuaraz eginak hain dire irakusgarri eta ukigarriak, nun guziek atseginekin behar baikintuzke irakurri agertzen diren aldi guziez.

Loth beraz denak besarka eskuarari, orai eta hemendik aintzina, traba guzieri bihurtuz…Eta guk, aphez eskualdunek, bertze nihork baino khar eta artha gehiagorekin berma eta sustenga gure mintzaia sakratua, erlisionearen gure arteko begirale eta lagun maitagarria.

ARTIKULUAK

3. "Bibliographie"

(G. Adéma, ch. h., curé doyen de Tardets, *Eskualduna* 157, 1890-05-16). Joanategiren liburu berriaz.

(Editorearen oharra) *Le nouvel ouvrage basque du P. Joanatéguy a inspiré à M. l'abbé Adéma, encore curé-doyen de Tardets, bientôt chanoine, quelques considérations imprégnées de la plus haute poésie et du plus pur patriotisme. Nous sommes particulièrement heureux de les reproduire).*

En 1876 un livre basque intitulé: *Ehun bat sainduen bizia* (Vies d'une centaine de saints), nous fut donné par M. l'abbé Joanatéguy aujourd'hui bénédictin de Bel-Loc, sous le nom de dom Basile.

Les basques des divers dialectes firent à ce pieux ouvrage l'accueil qu'il méritait de leur foi et de leur amour pour la langue de leurs pères. L'édition fut bientôt épuisée.

Après un début aussi encourageant, l'auteur ne devait point s'arrêter là. Dom Basile publia encore dans la suite une touchante vie de saint Benoît, fondateur de son ordre, ainsi que d'autres opuscules très utiles de piété.

En ce moment, son zèle ainsi que nos désirs le tiennent engagé dans le travail le plus volumineux qu'ait publié en France la librairie euskarienne.

C'est encore la vie des saints, mais plus complète que dans le précédent recueil. Il est juste d'insister, dans un temps comme le nôtre, à nous montrer de la sorte, ce que l'histoire de notre pauvre humanité peut offrir de plus noble, de plus pur, de plus héroïque et de plus merveilleux. Ces exemples d'élévation surhumaine ne sauraient trop réagir, même dans notre pays basque, contre les abaissements et les déchéances où nous entraîne l'excessive recherche du bien-être matériel ainsi que l'infatuation du progrès du siècle.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 19

Cette nouvelle vie des saints est précédée de celles de Notre-Seigneur Jésus-Christ et de la Sainte Vierge.

L'imprimerie Lasserre vient d'en éditer un premier volume de 500 pages qui va jusqu'à la fin du mois d'avril, et sera suivi de deux autres qui compléteront l'année. Ce volume est du prix de 2 fr., pris à Bayonne.

Notre hagiographe basque a fait là un choix de vies dont la popularité, ou les merveilles encore peu connues du public, pussent le mieux satisfaire la pieuse curiosité du lecteur basque. Il s'est attaché à les narrer dans un langage et un style accommodés à l'usage, à l'intelligence, à l'accent ordinaire de la plupart des gens du peuple. Même certains détails de son orthographe semblent obéir à cette préoccupation d'utilité générale ou de vulgarisation, sans exclusion toutefois du soin de la terminologie pure et de la recherche des bonnes tournures.

De courts alinéas, à l'instar des versets de la Bible ou de l'Imitation de Jésus-Christ, facilitent aux moins lettrés la lecture de ces récits intéressants.

Qu'il soit le bien venu, ce bon livre qui fera encore tant de bien aux âmes: qu'il ravive la vieille foi des Basques, qu'il soit le conteur préféré aux veillées de leurs foyers, et leur compagnon aimé dans leurs heures d'isolement, de garde ou de repos.

Maintenant surtout, où tant d'éléments dissolvants conspirent contre nos mœurs religieuses et la conservation de notre langue basque, il importe à chacun de nous de défendre notre pauvre mais noble pays contre tout envahissement étranger soit de doctrine, soit de législation, soit même de modes, qui tendraient à enlever son noble cachet à notre nationalité.

Il appartient au clergé, à tous les esprits cultivés du pays, aux familles de noble ou vieille souche, ainsi qu'à tous ces hommes d'honneur qui n'ont point dégénéré parmi les races étrangères, ni sur les chemins de la fortune, ni sous les chaires de la science…il appartient à tout vrai Basque, aujourd'hui plus que jamais, de soutenir et d'encourager tout ce qui tend à conserver ces deux trésors de notre antique famille: notre catholicisme et notre langue.

Ce n'est que sous la condition de l'intégrité de nos fors et de notre nationalité que nous nous fédérâmes, jadis les uns à l'Espagne, les autres à la France. Et si notre assujettissement à l'une ou l'autre de ces deux dominations a subi les violences de la force et de l'asservissement, nous avons été plus loyaux dans notre soumission que nos maîtres dans leur engagements. Cela n'empêche encore aucun vrai Basque de se dire Basque avant tout.

Hélas! Ils ont cessé d'être de vrais Basques, tous ces renégats de notre foi, et tous ces *frantchimants* qui dédaignent de parler notre langue, et tous ces abâtardis qui ont adopté les usages et les costumes des Gascons. C'est ce spectacle de dénaturalisation qui a fait dire, non sans raison: "Le Basque est un peuple qui s'en va!"

Nous nous en allons par tous les chemins du progrès moderne où réellement c'est notre dégénérescence qui progresse. Nous nous en allons en faisant place à toutes sortes d'envahissements étrangers. Notre sang va se diluant en d'autres sangs inférieurs. Nos mœurs s'en vont comme s'en furent nos libertés…Les vieux, nous disparaissons presque contents de fuir tant d'avilissements.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 20

Et nos enfants!…où vont-ils? Et que seront-ils? De leurs écoles sans Dieu, où déjà des maîtres étrangers à leur langue natale commencent à leur être imposés, où leurs exercices de marionnetes et leur gymnastique de savante méthode sont loin de valoir sous aucun rapport leurs beaux jeux de balles,…de toutes ces fabriques pédagogiques où on les façonne tous à un moule officiel hétérogène, il sortira une génération sans nom, n'ayant ni la foi, ni rien de la noble originalité de ces ancêtres. Au lieu de la langue basque, elle parlera l'affreux patois soi-disant français dont nos demi-éduqués de village nous offrent déjà le spécimen.

Et cependant, à cette heure même où nous disparaissons, notre race et notre langue sont l'objet de l'étude, de l'étonnement et de l'admiration des savants.

Depuis les découvertes, les observations et les constatations de Guillaume de Humboldt, les plus illustres philologues et les ethnographes les plus sagaces du monde entier rivalisent d'explorations sur nos origines, nos émigrations et notre mystérieuse durée à travers tant de nationalités tour à tour disparues. Notre langue est reconnue comme langue savante; et ce sont les princes de la haute érudition, qui de Paris, de l'Allemagne, de Londres, de l'Autriche, nous révèlent sur notre existence comme peuple et sur notre idiome natal, des grandeurs et des beautés à rendre envieux nos dominateurs.

Qui sait? Tandis qu'ici, aux deux versants des Pyrénées, tant de Basques se résignent trop aisément à l'extinction de leur nationalité, le même peuple se reproduira peut-être bientôt plus grand qu'il ne le fut jamais sur les plages libres que lui offre l'Amérique.

Quoi qu'il en soit, ici même, défendons-nous contre notre propre destruction, et contre toute atteinte à notre indépendance. Honneur à la foi, aux moeurs, à l'*eskuara* de nos pères! Honneur à tous ceux qui travaillent à enrichir notre patrimoine littéraire.

Tardets, 16 avril 1890.

Gr. Adéma, ch(anoine). h(onoraire)., curé-doyen de Tardets.

4. Eskualdun bestak (1894)

(Zaldubi, *Eskualduna* 380, 1894-9-7).

Liburu bat egiteko liteke azken egun hautan Doniane Garazin eta guziz Doniane Lohizunen egin diren besten gainean.

Eskualdun bestak…Eskuara garbi eta xaharrez *eskual jeiak*.

Ordean zertako, lehen ez bezalako jei edo besta edo bilzar handi horiek? eta bereziki orai, Frantzian segurik, eskualduna kasik ez deusetaratua den denbora huntan? Huna zertako:

Preseski eskualdun aspaldixko huntan gisa guziz galtzera dohanaren, arras[1] ezeztatzerat utzi gabe pitzarazteko, eta norapeit ere higiarazteko.

1 - Arraz.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 21

Gauza ahalkagarria baita, munduan orai bizi diren jendaia edo populuetan den zaharrenak, hainbertze menderen buruan ukho egin dezan hola bere odolari…bere aztura zaharreri…bere berechtasunaren ohoreari…bere eskuara mintzaia guzietan den ederrenari…bere lokabe edo libertate guzieri… bere izate osoari…hots! hitz batez bere eskualduntasunari.

Orai arteraino, baziren hainitzak gure artean geldi-geldia, ixil-ixila, umul-umila eta tonto-tontoa bizi zirenak deus guti jakinkiz eskualdunen ethorkiaren eta heien lehengo gorabeheren gainean.

Behartu zaizkigu ehun bat urthe huntan eskola eta jakitate handiko gizon batzu, eta hetarik zenbeit arras arrotzak, guri irakutsi daukutenak nor garen gu eta guziz denboraz zer ginen gu.

Hasteko gure eskuara mintzaiaz egin darokute hainbertze espantu, nun guhaur izan bagine heien egile gure hauzo guzien irriegingarri izanen baikinen.

Zer arrozoin zuketen jakintsun handi, angeles, aleman, erdaldun, eta frantses horiek, gu orai garen bezalako eskual-jendearen hoinbertze ostandatzeko?

Gilamo Humboldtek[2] gehienik ohartarazi gintuen gure jendakiaren ethorki eta egoitza mende zaharretakoez.

Hark erran zarokun nola mintzo ziren eskualdunez duela bi mila urtheko liburuak. Arren gu sekulan ez ginen atrebituko holakorik bazitekela ametstera.

Ondotik agertu zen Agustin Xaho, atharraztarra, bere denbora laburrean asko harrabots asko gisetara egin zuena. Bai, bainan bera eskualdun zelakotz haren espantueri ez zioten kasu handirik egin.

Gero berritz athera zen Luzien Bonaparte; hark ixilarazi zituen duda-muda guziak, bereziki gure eskuararen edertasunaren gainean.

Hainbertzenarekin huna On Antonio Abadia, Frantziako lehen jakiletegiko[3] gizon handietarik bat, aitaz eskualdun urrustoitarra.

Badu bederen berrogoi urthe Antonio Abadiak urthe oroz han edo hemen ematen dituela primak edo garait-sariak[4], eskuarazko neurthizlari eta koplarieri; eskualdun pilotari hobereneri; eta berrikiagodanik irrintzin egile, eta dantzari lehengo modu zaharrean ederkienik ari direneri.

Jaun horrek nahi larozkiguke baitezpada atxikarazi gure arbasoen aztura zahar guziak, hasirik josteta eta joko gure-gureak ditugun hoietarik, deusek ere ez omen baikaitu hala ohoratzen, ez eta jende arrotzen beren bixtan hain eder agerrarazten.

Eskualdunak bere eskualdun lege, bizimodu, mintzaia, jei eta usaia guzietan, hetan zagoeno segurik ez zuen nihungo jenderik altxatueneri zorrik. Ez du egundaino bere burua edertu ez goratu heien lege eta azturetarat eroriz. Hobeki eginen zuen bere jauntzian ere ez balitz jarraiki, egin den bezala kaskoinen moda errebes hoieri.

Alta, nunbeit han gabiltza gure Eskual-herrian berexkeria horren ikustetik.

2 - Humboltek.
3 - Jakiletegigo.
4 - Garrait sariak. (egungo ortografian ezarri dugu, r bakarrarekin).

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 22

Duela hiru ehun eta berrogoi eta hamar urthe, mendi alderdi huntako eskualdunak Frantziari, eta mendi alderdi hartakoak Espainiari eratxikiak izan ginenean, gure lur, lege eta usaia guziak gure; gure patu guzien zimendua zen gure fueroetan.

Ondoko denboretan batere arrozoin leialik gabe lehenik gutitu eta gero khendu dauzkigute gure fueroak. Gure indar eskasez bortxatuak gare amor ematera, bainan ez lehengo gure libertate eder heien ahanztera.

Fueroak galduz geroz zer gelditzen zaiku gure eskualduntasunik?…Gure mintzaia eskuara, gure lehengo azturak, pilota jokoa, irrintzinak, muxiko eta aurreskuak[5], pastoralak eta bertze asko jei eta josteta gisa, gure herrietan beizik ikusten ez direnak.

Jende arrotzek, eta arrotz hetan guziz jakintsunenek diote nihun ez dela ederragorik.

Arere ederrago zaizkotenak dire, gure fede zahar eta azkarra, orai artio bethi xutik atxiki duguna…, gure elizetako kantuak…gure etxetako jainkotiar ohitzak eta kostumak…, eta gure odol garbia.

Horiek,…bedere oraino gure gelditzen zaizkigun horiek, atxik eta begira detzagun tinki, amodiorekin, suharki eta fierki, deus galtzerat gehiago utzi gabe.

Beihalako alhargunaren alabak holatsu zagozkan, amaren ontasun guziak galdu ondoan, haren espos eta aberats[6] denborako urrheriak, deusetan ere nihori ez nahiz saldu, bera goserik egonik ere…hek amarenak baitzituen!

Antonio Abadia jaunaren ondotik, Goyeneche Donibane Lohizuneko[7] auzaphezak eskualdun ohitza xahar guzien ospanditzeko besta hoieri eman diote, duela bi urthe hasirik, hedadura eta edertasun gehiago, gan den egun hoietan azkenik ikusi dugun bezala.

Jaun eskualdun suhar horri deus ez zaio sobera Eskual-herria ohora dezaketen gauza guzien oso begiratzeko eta gorarik agertzeko.

Besta eder horiek badute bertze irakuspen bat eta bertze xede bat.

Frantziako eta Espainiako eskualdun guziak, jendakia bat berbera gare. Hori ez zakiten, edo gogoan gutiegi zabilkaten hainitzek.

Batasun horren agertzekoak eta tinkatzekoak dire besta hoietako gure bilkhideak.

Horrela, zazpi Eskual-herriak elgarri lothuz egiten dire zazpiak bat. Laphurdi, Basanabar, Sibero, Frantzia aldetik, Nabar, Gipuzko, Bizkai eta Alaba, Espainia aldetik.

Herrialde edo probentzia bakhotxak holako egunetan ditu denen bixtan irakusten hulako joko edo halako dantza edo bertze jostagailuetan dituen antze partikularrak:... Segur loria baita orduan bazter guzietarik harat bildurikako eskualdunek elgar hain amodiorekin ikustea, elgarrekin han alegeratzea, eskualdun odol bereko garela ezagutzea.

5 - Aureskuak
6 - Aberatz.
7 - Lohizuko.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 23

Zein eder den orduan guziek, xutik eta buru-has, elgarrekin kanta dezagun *Gernikako arbolaren* kanta sustagarria, eta bertze kanta laphurtarrenaren oihu hau:

Zazpi Eskual-herriek bat egin dezagun

Guziak bethi bethi, gauden gu eskualdun.

ZALDUBY

5. Laborariak! Ez oraino etsi! Irakurrazue[1] hau! (1896)
(Adéma Zaldubi, *Eskualduna* 495, 1896-12-11).

Gan den *Eskualdunean* aiphu zen ogiaren eraiteko sasoinik hoberenaz.

Dio Vilmorinek urrian edo hazilean erain ogia nausi dela mozkin emaiten.

Sei ehun urthez Espainia gehienaren jabe egotu ziren mairuek herri hautan utzi sinheste bat da. Abendo beherapenean litekela hoberenik ogiaren eraitea.

Hargatik denbora nolakoa den!…

Aurthengo sasoina segurik, ogirik ezin eginik deramagu orainokoan: etsigarri dela ere diote hainitzek.

Ez oraino etsi laborari maiteak: huna etsenplu bat gogoaren altxagarritzat har dezakezuena.

1856ean edo hamazazpian, Kaskoina zena, denbora hartako pilotari famatua; pilotari, itzain eta laborari kasko gaitzekoa Hazparne Oihartirian zen etxetiar hemezortzi ehun liberetako aferman.

Bertze itzain batek jo zion aferma bi mila liberetaraino, eta Kaskoina athera zen Oihartiritik, itzaingoa utzi gabe ostaler sartzeko.

Lur handiak eta gizenak zituen Oihartirian, Hasparneko karrikaren alde batean, eta bere idi ederren ongarriz eta lanez gain gainetik zagozkan. Negu hartako haren harbiak ez zuen parerik.

Oihartiritik ondoko Juandoni Martietan athera behar zelakotz, egin zuen bere buruari behar ziola hango lurrari arte hartan, ahalikako mozkinik gehiena[2] ebaki.

Denbora hartan Hazparnen bikari nintzen eta Kaskoinarekin hainitz atxikitzen nuen.

Sekulan orhoituko naiz, Hauste eguna zen, eta Elizako ofizioen ondotik, garizumako lehen baruraren ahanzten nindabilan eguerdi aintzinean errege bidean harat eta hunat Oihartiriko alhor sahetsean.

Alhor hartako harbia ordukotz jana, ogi eraiten ari zen Hauste egun hartan gure Kaskoina. Erran zautan, uste zuela oraino ogi errekolta on bat bil lur hartan orduan erainik ere, bertzenaz ere goizago erainez lurra gizenegiz ogia ondu gabe eroriko zitzaiola toki hartan.

Orhoit naiz ogi hura uztailean ederrik eta lastoz frango gorarik, bildu zuela Kaskoinak hamar bat egun doi-doia bertzeek baino berantago.

1 - Irakurazue.
2 - Gehina.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 24

Ogi hura bildu eta, Kaskoina hor doa Ostubilako etxetiarrarekin Baionara Miarrizko artho kasta laster jiten den bat baita, hartarikako haziketa.

Artho hura ogi alhor hartan berberean erain zuen aboztuaren hiruan. Gan zen Nabarrangoseko merkhaturat: handik ekharri zituen hirur idi zahar pare, mehez xutik doi-doia zaudezenak.

Arthoa laster eta usu sorthurik Kaskoinak lehenik idi horien bazka ferdetzat zagokan.

Uda ederrak[3] emanik, artho hori uste baino ederrago baitzohakon, Kaskoinak ematen zioten nasaiki bere idieri bakhanduz eta hondo hoberenak[4] handitzerat utziz alhorren.

Hirur idi pareak larruak atxik ahala gizendu zitzaizkon eta irabazi ederrean saldu zituen.

Abendoko ilhabethean ehun erregu artho bihi, erran dugun artho horren berexkunde hondotarik bazituen Kaskoinak bere aldategi berriko selharurat bilduak. Ostudilako (sic) etxetiarrak ere nihaurri irakutsi zarozkidan nunbeit han bertze hainbertze.

Erran behar da, uda halakoa izan baitzen.

ADÉMA ZALDUBY.

6. Donibane Lohizuneko pilota partida errebotekoa (1896)

(Zaldubi, *Eskualduna*, "Eskual-Herria" saila, 1896-7-3)

Biba Donibane! ez da nihun Eskual-herrian besta ederragorik egiten. Hasteko larunbat arratsean Jondoni Juaniren alegrantzizko sua hango zeremoniak nihun ez bide du parerik. Igande goizeko eta arratsaldeko ofizioak ere nihun baino ederrago dire eliza handi eta supher hortan, eta populu guziak sorkhan hetara du lehia. Han da han egizko eliza besta, osoki erlisionezkoa, eta egun osoa Jainkoaren eta Patroin handiaren ohoratzen deramatena: beren burua ere ez dute hortan donibandarrek gutiago ohoratzen: hala diote han suertatzen diren jende arrotz, jende argitu, eta gure fede katolikotik kanpo bizi direnek berek.

Biba Donibane! ezen nihun ez da besta astelehen eta astearte hain eskualdunik eta hain alegerarik egiten. Hoinbertze artha eta lehiarekin…hoin euskaldunki herriko besta bat arrimatzen duten buruzagiek edertzen dute tokiaren fama eta itxura guzia.

Deusek ez du hala edertzen herriko besta bat igandez kanpo, nola erreboteko partida batek. Ordu zen noizbeit eta nunbeit, bi urthe luzeren buruan, ikus ginezan holako partida bat; plekako joko horrek, bethi gauza bera, jendea asetzen hasia baitu.

Astelehenean Donibanen jokhatu den partidak izan du aldarte ederrik. Izan da joko bat bederatzi aldi adostu izan dena. Partida hastean uri xehe batek plaza eta bereziki errebot barne harri pikatuzkoa bustirik, athertu ondoan ere nekhez xukharazi ahal izan dute barne hura; nun erreferaria ez baitziteken higi lerratu gabe.

3 - Edarrak.
4 - Hoberenat.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 25

Hola-hola egin dituzte lehen sei jokoak, frantsesek bat eta españolek bortz. Uste ginuen españolek arrunt, edo bederen aski zalhu bazeramatela partida. Otharre ordukotzat berotzen hasia baitzen, eta lagunak ere hautak baitzituen, sarthu zen bere jokorik hoberenean. Handik goiti frantsesek berdindu zuten partida eta segidan irabazi hamabi joko lerroan eginik.

Azken galtzeko bi jokotaraino xoragarriki ari izan da español Mankoa; bainan ez zen hanbat ongi lagundua eta gerthatu ere zaizko bizpahiru ixtripu joko galaraztekoak. Ikusliar soberakinek ere, plazaren zolako bi izkinetan zenbeit aldi bere joko ederra trabatu izan diote…Bainan nundik egin holakotan aski jarlekhu, plaza nahi den bezein handi izanik ere, harat biltzen den jende ostearentzat? Ez ziren hurbiltzeko ere aski bi sahetsetako zazpi edo zortzi mailetako barrerak.

Erreferatik ehun metretan plaza-zolara, handik berritz errebotera, pilotaren hiru, lau, askotan bortz aldi, zorrotz eta lore airetan hola ikustea eder zaiku deneri, bainan ederrago zitzaizkigun paso marraren bi alde hurbiletan errexaxariek eta artekoek egin dituzten jo zalhu eta adretak. Agustin españolak eta Ganixon saratarrak ez dute parerik hortako: hoien sist eta sast biphilak nahiko gintuen kintze aldi guziez ikusi.

Erreboteko partida horiek diren baino arere ikusgarriago eta atakatuago litezke, plazak berak balire orai erratera gohazin kondizionekoak.

Behinik behin ez liteke behar plazarik lauetan hogoita hamar metraz luzeagorik: lauetan hogoietakoak ere aski litezke hainitz herritan. Bainan halako plaza batek behar lituzke baitezpada bi burutako paretak zazpi, zortzi metra hein hortako goratasun berdinekoak eta pareta hoikien pasatzea bethi falta.

Plazaren zolako holako pareta batek bixtan da plazaren luzetasunari eman lezokela hogoi bat metra gehiagoren balioa.

Zolako erreturnariak orduan bigarren errobot batetik bezala ihardok lezoke erreferari[1] gaitzenari, eta kintze gehientsuen trenkatzeko lana liteke orduan paso marrakoeri edo artekoeri sistako biphil zenbeiten igortzea. Errexaxarien jokoak orduan luke menta usua eta ederra.

Sarako bestak lehen hain eder ziren denboran orhoit gare hango plaza ederrean, erreferari handi batzuek, herrikotxea[2] bera gainez gain pasatuz, orduko eskularruez[3] berez egiten zituzten paso alimaleez. Zer ez zuten eginen oraiko xixterekin. Bainan nor zen haindiko landa hartan pilota holakoen erreboterat itzultzeko, onetik segurik.

Maiz gerthatzen ikusten ginuena zen: erreferaren pilota[4] sartzen etxe haren beraren leihoetarik barnera edo hango arku azpietara, eta hartan kintzea akhabo, kintze aise hala erreferak irabazia. Yats hazpandarra bezalako erreturnari bat zola hartan izanik ere, askotan nihundik ezin balia haren jokoa.

Oraiko xixtera jokoarekin, erran dugun zolako paretarik gabe, ez daite plazarik aski handirik, eta holako pareta batekin jo guziak barnean daude berdin indarrekin:…eta pilotari bakhotxak han hobeki balia detzake bere ahal eta karkula suerte guziak.

1 - Erreferariak.
2- Herrekotxea.
3 - Eskularuez.
4 - Pilotan

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 26

Badu hogoi eta zenbeit urthe Urruñako errobot laburrean, bortz frantses hoberenak, bortz español hoberenen kontra, jokhatu zela egundaino ikusi den partidarik bihurriena, erroboteko eta zolako bi pareten gainetik zohaken joa bethi falta. Ez zen han lore joiterik; bizpahiru gizabetheren heinean burutik buru zabilkaten xixtuz pilota, nun ez baikinuen erdietan gure aintzinian pasatzen ikusten ere. Paso marrakoek bazuten segur lan egun hartan eta behartzen zitzeien erne izaitea. Halere damurik ziren bi buruetako paretak uste gabezko jo batzuentzat aphalegi, bertzenaz ez zen izanen hango jostetaren parerik.

Diogu berritz ere, erran dugun heintsuko luzetasunarekin plaza batek paret gorak balitu bi buruetan, erreboteko jokoa jadanik hain eder dena, doble ederrago liteke, eta pilotari-gai gazteek halako batean gostuz ikhasten ari litezke.

Balitz nunbeit holako plaza bat, ikhusteko liteke han partida hau: lau xahar hoberenak hogoita bat urthez azpiko erreferari batekin; bertze lau xahar adin bereko erreferari gazte batekin…ezen ordu da gazte hoiek, soldadugorat heldu gabe, ager diten erreboteko partida handietan, oraiko xahar hoiek gazte zirelarik agertzen hasi ziren bezala.

ZALDUBY.

7. Donibaneko erroboteko partida (1897)
(Zaldubi, *Eskualduna* 532, 1897-8-27, 1. or., 1. zerrendan).

Hots! noizbeit bederen, noizbeit Frantzia alderdi huntan; Laphurdi huntan;…Mila zortzi ehun eta larogoita hamazazpian, agorrilaren hamaseian;…—kasik, kasik balio ere bailuke erratea zenbatgarren mendean; —Donibane-Lohizuneko plaza handian, jokhatu da, aspaldi ikusi izan den erroboteko partida ederrenetarik bat.

Denborak zituen ez ginuela gure alderdi hautan erroboteko partidarik ikusi. Bide dire asko gure oraiko gazteetan zer den ere ez dakitenak erroboteko jokoa…

Erreboteko jokoa;…gure arbasoen joko eder, handi, famatua;…Eskualdunen egundainoko joko eskualdun berezia; …jende ospeen aintzinean ohorezki jokha ziteken bakharra;…kaskoin, erdaldun edo arrotz nungo nahikoek egundaino ikhasi ahal izan ez duten jokoa;…Eskualduna indarrez, zalutasunez, antzez, eta buruz zer den irakusterat ematen duen jokoa…gure herri hautan bere gisa utzia zagon zenbeit urthe huntan, plekako jokoa hainitzek nahiagoz.

Plekako joko hori, bere ederrenean ere, zer da errobotekoari edo laxoari berdinkatzeko? Bethi pareta handi bati jo eta jo eta bethi jo;…bethi pareta horri buruz, bethi elgarri gibelez edo saihetsez…Yokoaren erdia denek bethi paretari eginaraz; …pareta jokoz nausi…eta gero bethi jo berak edo berdintsuak, guziz kintze iraunkorretan; …buruzko antze guti; …oraiko asko zaharrek diotena; plekako jokoa, lehengo denboretako haur jokoa; kaskoin jokoa!….Horra zeri emana den oraiko gure gazteria, nihon deus ederragorik edo ikusgarriagorik ez balitz bezala.

Gure hondar errobotlariak zaharregitu dire eta heien ondokorik ez zaiku nihundik ageri. Akhabo saratarren ohorea; …akhabo haspandarrena; akhabo khanboarrena eta ezpeletarrena.

Gan den asteleheneko partida hori ikusi dutenek erran dezakete, plekako jokoa zer gauza hitsa den errobotekoaren aldean.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 27

Murde Goyeneche Donibaneko auzapheza behar zen, partida horren jokharazteko orai gu garen bezalako pilotarizko ezerian.

Hamar errobotlari behar, eta biga beizik ezin hatzeman frantsesik! bat Larralde saratarra, bere berrogoi eta gehiago urtheekin, partida guzian, errobot paret aphal eta pik ondotarik, pilota bethi plazaren zola-zolaraino erreferatu duena:…Eta Ziki berritz, Ziki, zer botaria! zer beso zorrotz eta zuzena!…erran diteke hark ereman duela partida.

Bertze zortzi pilotariak españolak ziren. Laphurdirentzat zer ahalkea! halako besta handi batekotzat;…Arrotz herrietarik, eskualdunak zer garen ikusterat ethorririkako hainbertze jende handien aintzinerat agertzeko;…Jaun aphezpikua bera holako partida baten ohoratzerat behin jinen eta…bi pilotari frantses beizik ez hemengorik, eta zortzi españolek irakutsi behar, hek direla hek legezko eskualdunak!…Horra beraz zertaratuak garen.

Partida hortan bezalako jo harat hunat eta plaza burutik plaza bururakorik guti ikusi da. Paso marrako eta errexaxakoek lana frango izan dute: loriatu gaitu heien adrezia erneak.

Damurik plaza zolako etxeen paretak ziren hain desbardin, eta denak athe eta leiho. Izan balitz han pareta bat errobotekoaren negurri berekoa, jostetak izanen ziren kintzeak ezin hondarreratuz, eta partidak doble iraunen zuen.

Izan da joko bat zointan adostu baitire bederatzi aldi: lau, bortz aldi adoste hori maiz gerthatu zaiote.

Jaun aphezpikuak, nik dakidan norbeitek irakutsirik, bazakizkan erroboteko jokoaren harat-hunat guziak; bai xaxak noiz eta zertako diren, bai nola kuantetik jausten den jokoa trentera. Loriatua zagon gorabehera hoikieri beha:…dio oraino ez zuela sekulan phentsatuko bazitekela munduan holako joko noblerik.

Erran behar da, gauza guziak jaun aphezpiku baten beraren gostukoak eta ohoratzekoak ziren.

Lehenik, plazan sartzeko musika: Harispe jeneral zenaren xazur eskualdunen martxa edo aire xoragarria.

Gero yaun hauzaphezaren agur eta ongi ethorria jaun aphezpikuari bere kargudun lagunekin, eta harat bilduak ziren bertze asko jaun handiekin.

Hamar pilotariak, plazan sartzearekin, presentatu ziren bi lerrotan, jaun aphezpikuaren aitzinera, agur egin zioten denek batean, eta jaun aphezpikuak benedikatu zituen.

Partida erditsutan zelarik jo zuen eguerdik. Bi tronpetek jo zuten sagarako airea eta jaun aphezpikuak, bera xutiturik, ikusi zuen plazako jende guzia, eta pilotariak ere, jokoa utzirik Anjelusaren erraten xutik eta buru-has…Ukhitua zen bihotzeraino; erran zioten bere aldekoek, hori zela eskualdunen usaia. Kasik uste izateko zen harentzat elizako ofizio batean zela.

Huna bertze gauza bat, miragarri izan zaikuna: zortzi pilotari españoletan bi aldetako hoberenak eta aintzindariak, biak beso motxak: bat Billabonako manko famatua, bertzea Irun, joiletan diteken bihurriena, duela urthe bat pilota ukhaldi batek beso ezkerra hautsirik, geroztik beso hura bi aldi moztua izana.

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 28

Eroriko bat eginik beso moztuaren alderdira Irunek izan du goibeldura bat, nun beldur baikinen ez zela gehiago on izanen bere jokorat itzultzeko…Geroztik egin du jokorik biphilena, nun bertzeek sei eta hark batere izanik, altxatu baitzen bederatzi jokotara.

Erran lezakete zenbeitek jostatzeko partida bat zela: eta bi alderdiek elgar aditzen zutela…Zer eginen zuten gehiagorik, egin ahalak zinez egin izan balituzte, eta elgar xehakatu nahiz ari izan balire.

Elgar aditze hortaz aspaldion, plekarien gainean ere bada asko errankisun (sic).

Denek diotena hau da: asma ahalikakoak egin behar litezkela Eskual-herri guzian, erroboteko edo laxoko jokoaren berriz pitzarazteko: bertzenaz eskualdunen ohoreak egin du.

ZALDUBY

8. Eskual-herriko eliza bestak

Artikulu hau 1899an *Eskaldunan* agertu zen lehen aldiz (Zaldubi, E 626, 1899-6-16, 1. or., 1. zer.). Testua berreginda, berriz 1908an, egilea hilda gero (E 1107/1108/1109, 1908-VI-25; VII-3, 2.a 1. or.; VII-10). RIEVen ere bai, egileak 15 egun hil baino lehen aldizkariari emanik (*RIEV* 2 1908, 83-89). Azken testu hori berrargitaratzen dugu hemen.

Huna orai nun ditugun udako eliza besta urtheko alegerenak.

Jondoni Joani, eta Jondoni Petiri dire hainitz herritakoak eta lehenak.

Eliza bestak, Eskual-herrian guziz bai eder dire, beren lehen egun elizakoarekin; eta beren biharamun eta hirugarren, etxetan eta kanpoan halako gozoan eta bozkarioan dohazinekin!

Erlisioneari esker ditu jende xehe eta nekhazaleak bere biziaren arintzeko egun horiek, eta Eliza ama sainduak berak nahi du bere haurrak, holako aldartetan, lehenik bere besotan, eta gero elgarren batasunean deskantsa dakizkion.

Ai balakite zenbeitek zein goxo den Elizaren ume on eta leial gisa biziz, Elizaren ume on eta leial gisa bozkariatzea!

Huna zertarik dathorzkeen eliza besta horietan gutartean oraino dirauten asko usaia edo ohidura. Lehen mendetako girixtinoek, beren eskualdetako sainduen urtheburuetan, lehia zuten heien gorphutz edo gorphuzkiak zauzkaten herrietara beilaz gateko. Hango jende onek beren etxetan leihorra eta mahaina ematen zioten: baziren ere hortakotz etxe *Arroztegi* deituak…eta oraino Eskual herrian nun-nahi, izen hortako bereko etxe zaharrak badakuskagu, *haroxtegia* makhur derrotegunak. Denbora hetan, eliza bestek irauten zuten orobat Otabako aste osoa, eta oraino ere hiru egunetaraino iraunarazten diotegularik, gauzak naski orduan bezalatsu dohazi gutartean, herririk hoberenetan segurik.

Igandeko ohore nausiak, bai goiz, bai arratsalde, lehen bezala, elizako ofizioeri eratxikiak zaizkote gure herri oraino girixtino dauden guzietan…

Arte hortan, eguerdiko othoitzak etxe bakotxeko mahainean jarrarazten ditu, bil ahalikako ahaide eta adixkide guziak.

Bezperetarik lekhora, lege da pilota partida bat bedere jokha dadin herriko

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 29

pilotari hoberenen artean: gisa ere da, aphezetarik hasirik, herriko buruzagi, etxeko jaun, beren burua zerbeit daukaten zahar eta gazte guziak, dohazin orduan errebotera, eskualdun legezko jokoari eta pilotarieri ohore egiteko.

Besta biharamuneko jeiak eta hainitz tokitan hirugarrenekoak ere, ahalik eta handizkiena atxikiak dire etxetan, errebotean eta herriko plaza nausian.

Zenbeit urthe huntan, munduaren bazter guzietarik hunat jorik, jaun jendezale jakintsun batzu badabiltza, gure Eskual herriak nolakoak diren, gu eskualdunak zer garen,…eta eia gure aztura zaharrek oraino badirauten,…gu ahalaz bertze jendetarikako berextasun garbi hartan ikusi beharrez.

Gure eliza besten erdian; agerienik eta ederrenik garen hartan zaiote lakhet gure ikustea eta ja gutaz fama handia barraiatu dute munduaren asko bazterretan…Berak ez izanagatik ere oro gure erlisione berekoak, eder eta ohoragarri zaizkote elizan eta kanpoan gure fedeaz ematen ditugun ageri guziak…Eguerdiko *Anjelus*, plaza bethean buru has erraten dugun horrek berak, goratzen beizik ez gaitu heien estimuan.

Espantu handiak dituzte gure erreboteko pilota partidez, eta hek diotenaz, ez omen da munduan jokorik, hala agertzen dituenik gizonaren gaztetasuneko antze noble guziak. Zamari eta zezen korrida guziek ez omen dute hori balio.

Eskualdunen ona eta ohorea bilhatzen duten gizon argitu guziek diote, eskualdunak behar lukeela bethi egon eta agertu eskualdun, utzi gabe galtzerat bere aztura eta berexkida zaharrak; ez baitu deus orai artio irabazi bertze edozoin jende arrotzen iduriko edo meneko jarriz. Itsusten eta mendratzen beizik ez du bere burua heien jestu, moda, mintzaia eta berrikeriak ederragotzat hartuz.

Laphurdiko seme bat, gaztean pilotari eta plazagizon eder izana, urthe luzez urrun toki arrotzetan egonik, berriroski Eskual-herrirat itzulia, entzun dugu nardatua mintzatzen, hemen gaindika ikusi dituen eliza besta batzuez. Jaun horren lehen hitza zen: “Debruak joan du eskualduna”.

Eliza batean, kantika frantsesak,…predikua ere frantsesez…Besta hiru egunetan nihun kasik erreboteko partidarik gehiago jokhatzen; orotan pleka eta pleka beizik ez…Muthikoska batzu karta frantsesekin jokotan eta frantsesez mintzo; handiagoko batzu kaskoin herrietan bezala girletan; bertze andana bat ostatuan frantsesez kantu errepikan. Herriko plazaren erdian, dantza frantsesik baizen ez; dela polka, dela maxurka, dela eskotix, eta purtzilkeria, herri handietan hiriko musika batekin; ttikiagoetan xirribika edo klarinet soinuz;…Eskualdunen leheneko thanburin eta xirola alegera hura nihun ez gehiago ageri…ez eta irrintzinarik ere kasik nihun.

Erran dugun jaun horrek herri batean galdegin ditu muxikoak; xirribikari xahar bat, hain xuxen bazuten jotzen zakitzana: ez zen gizon gazte bakhar bat han eskualdun dantza hortan piko baten ere ematen zakienik. Hiru hogoi urthez goitiko bi mugertar athera ziren, behari guziak harritu baitziren eta loriatu hekien jauzi eta urrats nobleen ikusteaz. “Ez da beraz, zioen, ez, ez da gehiago ez Laphurdin ez Baxenabarren gazteria eskualdunik.” Denik ere Xuberon, hobekixago daduzkate lehengo josteta zaharrak.

Espainia alderdiko eskualdunak azkarkiago atxikiak dire beren arbasoen denboretako oitura guzieri. Donostiako hirian, beren bestarik handienetan, Bestaberriko proasionean berean, harmadako musikarik ederrena baino lehenago

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 30

eta buruzagiago daukate beren *danbolina* eta *xilibitua*. Hau aintzin-aintzinean, gero da musika osoa. Eliza bestetan kanpoko jei guziez artha handia du herriko alkate jaunak. Dantzak berak, haren manuaren meneko dire. Dantza hek gureak ez bezalakoak dauzkate; gehienak eta ohorezkoenak mairuen denborako eta bertze aspaldiko gerlen eta gerthakari handien orhoitgarriak dituzte, eta hainiz gisetakoak. Frantziako dantzak han gaizki ikusiak eta debekatuak ere litezke; jende xehea bera asalda laite. Iguzkia sarthuz geroz, dantzatik etxera helduak ez litezken neskatxak segur harrikatuak laizte.

Erran gabe doha Espainiako Eskual-herrietan ere ez dela pilota partidarik gabeko bestarik. Guti beharrez han ere, asko herritan nausitu zaiote plekako jokoa, gurea baino oraino sorjesagoa, ezker sahetseko bigarren pareta batekin nekhe baita hala falta baten egitea guziz ezkerdoentzat,…bethi jo, eta jo berak,…kintzeek ez dute han akhabatzerik plekari lehertueri hatsak eskas egiten diotenean beizik.

Hala-hala, hango jendea asea bide da orai plekako joko hortaz, eta errebotean lehen bezala artzen hasiak omen dire pilotariak, erreboteko plazak oraino oso dauzkaten tokietan.

Frantzian, maizenik segurik, plekariak sahetseko paretarik gabe artzen dire Espainian baino meritu gehixagorekin:…bainan halere, behinik behin esku huska, eskasa hain urrun;…pareta hain zabal eta gora…bethi kasik joak eder, indarra adrezia baino nausiago: ixtripuz baizen kintzea ezin trenka; …horra esku huskako plekaren edertasuna, eta gu horri beha zoratuak egoten!…bertzerik ez izanez. Badire ere plekariak joko hortan fama ederra eta jornal handiak ja irabazi dituztenak.

Xixteraz pleka ari direnek, zafra gaitzagoak, eta ikusgarriagoak dituzte; eta zein urrun eta zein zorrozki! Damurik dire horien joen erdiak falta, sobera atxikiak direlakotz;…xixtera luze horren barnean bi punpa frangotan eginik, berges jujatuak izan behar litezkelakotz. Halere orainokoan on hartuak zaizkote guziak. Atxiki arras lasterrik baizen ez daiteke haizu.

Pleka artze horrek gure gazteriari galarazi dio erreboteko jokoaren gostu eta antze guzia. Lehen plaza batzuetan ez zen haizu pleka artzerik. Eder zen orduan ikustea zenbat pilotari atheratzen zen Saratik, Hazparnetik, Ezpeletatik, Khanbotik, Zuraidetik, Ahetzetik, eta bertzetarik, erreboteko jokoa zelakotz bakharrik onhetsia.

Orai ez dugu halako pilotari ederrik, zaharrik eta lehenekoen hondarrik beizik: direnak ere ongi estimatzen baititugu. Horiek ganez geroz, egin du gure Eskual-herri alde huntakoaren ohoreak.

Hargatik ez gagozke hola.

Eskual-herrian ez daiteke behar bezalako bestarik erreboteko partidarik gabe.

Nun dire ordean, eta zer ari dire gure muthil gazte gehienak? Igande eta besta egunetan han omen daude ostatuetan edo zokhotan: ez da hanbat zainhart izan behar hortako. Pilotari ohi zahar batek zion berriki: “Oraiko gazteek odola arno bilhakatua dute”.

Halere ez ginuke etsitu nahi; bainan zer egin?

Diote zenbeitek, oraiko xixterekilako jokoa errobotean gaitzegia dela…Nork bihur pilota erreferak urrunegi edo ezin hartuzko tokirat igortzen duena? hala nola plazaren zolako burua dena zokho eta izkina, dena leiho eta theilatu denean?

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 31

Batzuen arabera behar litezke faltatzat ezagutu errefera aldetik 90garren metra pasa lezaketen jo guziak: ordean hori liteke errefera aldekoeri beren indarraren khentzea.

Huna gutiz gehieneri zer zaioten hoberenik:

Ez litekela behar erreboteko plazarik, zolako buruan, bedere bortz metra gorako pareta bat gabekorik.

Aski laite orduan plazak ez dezan izan 90 edo 85 metra baino luzetasun gehiago.

Erreferatik ehun metra eta gehixagotarat lohazken pilota guziak pareta horrek plaza barnean atxik letzazke, zola hartako erreturnalariaren menean, eta orduan liteke, bi buruetako, artetako, errexaxako eta paso marrako pilotarien josteta zinez emendatua eta guziz usu atakatua.

Urruñako errebota liteke molde eta negurri arras onekoa, zolako pareta gorago balu.

Pareta hori madrigaz eta thaulaz ere liso eginik, frango laite, eta pilotari zenbeiten arabera hobe baizen ez, hark goraxko hartu pilota ez dadin sobera urrun errenbolia.

Badire zurginak holako baten egitea beren gain har lirotenak 250 liberetan, oro berek forni, eta oraino merkeago, zerbitzatu eta materiala berentzat geldi: ezen thaulazko pareta horrek abantail hau ere badu: plazaren nahi den heinean ezar baititeke eta gero nahi denean khentzeko errexa baita.

Bertzalde, muthikoek arras gaztedanik ikhas dezaten erreboteko joko handia, herrian ontsaxko direnek, guziz buruzagiek eta aphezek ere elgar adituz, behar liozkete eman igande guziez ofizio artetan, ez bertzela, ar aldi bakhotxeko pilotak eta xixterak, pleka hargatik ez artzekotan.

Noiztenka, eta bereziki eliza bestan, 17 urthez azpiko bizpahiru muthiko plazaren buru batetik, bertze bizpahiru bertze burutik behar litezke[1] ederka bederen arrarazi, zoinek luzekiago harat hunat pilota onean ibil holako kintze bakhotxean. Hobekienik jokhatzen denari litzaioke hamar edo hogoi liberako sari bat eman, eta hobe oraino bi hobereneri…On ere liteke behari ongixko holakotan bil balakiote ikhastiar gazte hoieri plazarat.

Bada josteta txarragorik dirua aise, eta behar gabe ere, nornahik ematen dioenik. Arren hau gauza beharra da; egintza edo obra on beharrenetarik da gazteriaren onheski libertiaraztea; eta hortaz kasu ari ez direnek ez dute girixtino adimendurik. Herri eta jende aberatsek eginen ahal dute oraikotik emaitza ederrik, gure pilotako ohorea altxatu nahi duten muthikoeri…Hargatik ez ginezoke gazte bihi bati kontseila pilotako jokoaren bere ofizio guzitzat hartzerik; bertze bizimodu eta irabazbide ohikoak lehen baitire.

Denboraz aitoren semeak ziren, eta gure orhoitean oraino etxe hoberenetako seme eta nausiak berak, igande eta bestetan pilotan artzea ohore zitzaiotenak.

Sarako besta bezpera batez, Mixel Hauziartz handiak, Enperadoreari zion ongi ethorri egiten bere etxean; eta gero besta biharamunean Batixta Kaskoina, itzaina, bainan pilotari famatua, zuen jarrarazten ohorezki bere mahainean. Arratsaldean aldiz, biek jokoa egin, ari izan ziren errebotean, eta partida Kaskoinak zuen irabazi.

1 - Litezte

lapurdum XI 10/12/2007 15:56 Page 32

Lehen ez zen pilotaririk pagatzen…partida handi batean agertzea orori eder zitzaien…Desafioa handiago eta ihardoki nahiago, bazohazin berek jokhatzen zuten diruaren irabazteko edo galtzeko menturarat.

Gan dire denborak. Orai hargatik herriz kanpotik, guziz Espainiatik ekharrarazten diren pilotarieri zuzen da eman dakioten beren gastu eta gal bideen saria eta zerbeit gehixago ere artze saritzat. Orobat zuzen da jarlekhu edo barrerak beren gostuz ezarri dituzteneri paga dakioten behar dena; edo egon hetan jarri gabe.

Erreboteko partida bati beha osoki gostu hartzekotz, jakin behar dire joko eder horren lege eta gorabehera guziak. Huna premiatsuenak.

Partida egiten da hunenbertze jokotara; maizenik hamahiruetara.

Jokoak baditu lau kintze: lehena kintze, bigarrena trente, hirugarrena kuante, laugarrena jokoa.

Bi alderdiak kuantean berdintzearekin, biak jausten dire trenterat eta oihu egiten da *ados*. Hori joko berean gertha daite behin baino gehiago.

Pilota bat baratua denean paso-marraren eta erreboteko eskasaren artean, horri erraten zaio *xaxa* edo *arraia*.

Nola hobe baita errebotean izatea botako alderdian baino; botako edo plazaren zolako alderdikoek egin ahala egiten dute erreferaz jabetzeko. Hortako behar dituzte bi arraia joko berean; bainan batek edo bertzeak kuante balin badu, orduan kuanteko arraia bakharra aski da zolakoen erreferarat eta erreferakoen zolarat aldaratzeko.

Alderdi bakhotxeko pilotariak lau edo bortz dire: Botako alderdian, botaria; zola urruneneko *erreturnaria*; hoien bien arteko bat edo bia; eta paso-marrako edo hurbileko bat edo bia.—Errebot alderdikoak ere lau edo bortz dire: erreferaria askotan lagun batekin; eta bertzeak paso-marra arte hartan errexaxari.

Botariari dohako ahalaz bota gaitz eta zorrotz aphalaren erreferariari sakhatzea, edo pik, edo pik-ondo edo leherraraztia.

Erreferariak behar du erne egon, eta azkar bezein zalhu izan, pilotaren bederen paso-marraz harat igortzeko. Handik ez badiote itzultzen, kintze du.

Zolakoek harat igorri guziak behar dituzte paso-marraz hunat itzuli ahalaz xaxa egiteko gisan:…errebot barneraino itzulia han baratzen bada, kintze dute; bainan erreferariak huts eginez, pilota handik atheratzen bada, erreferatua balitz bezala da eta lau metretan arraia.

Erreboteko jokoan herrestan dohan pilota ona da baratzen den edo duten ponturaino.

Arraia bakotxa erreferan sarthu denarentzat paso-marra balitz bezala da; hura pasa eta paso da pilota.

Askotan jo ttiki eta labur batek, guziz herrestarat igorriak, balio du jorik handienak baino gehiago.

Irakuspen hautarik ezagun da erreboteko jokoa plekakoaz bertzerik dela. Laxoko edo luzeko jokoak errebotekoaren lege bertsuak ditu: botan du diferentziarik handiena.

lapurdum XI 10/12/2007 15:57 Page 33

Jokoaren harat-hunat hoikieri beha dagonak behar du beraz erne egon; hala-hala, zer atsegina hori jokoa ezagutzen duenarentzat! Ezagutza behar dena ez dutenek ez dute prezatzen jo eder eta harat-hunat urrun dabiltzan hetarik baizen.

Suedako errege berriki Miarritzen zelarik, erreboteko partida bat Frantziako eta Espainiako pilotari hoberenek jokhatu izan diote Gethariako plazan, eta hainitz eder atzeman du partida hori.

Bera ere gaztetik indarkako eta adreziazko zernahi joko handitan trebe izana,…ez omen zuen uste bazitekela nihun gazteendako erabiltza hoin ederrik eta gizonkiaren ariziari hobeki dohakonik. Zion oraino: "Eskualdun gazteria pilotari hautarik juja balin baditeke, paregabea da munduan"…Plekako partida bat gero hargatik ez zitzaion hurbiltzeko ere hain ikusgarri iduritu. Bere erresumarat itzuli denean, ereman du berekin pilota, eskularru eta xixtera parrasta bat, bai eta liburutto bat gure erroboteko jokoaren esplikazioneekin; nahi bailuke Suedoan ere hemen bezala pilotan ar dakizkion gazteak.

Badu jadanik zenbeit urthe Parisen, Angeleterran[2] eta Beltxikan, gure Eskualherriko pilota partidak hain eder atxemanik, zoinek hobeki ikhas, ari direla pilotan. Pleka bai, aise ikhas dirote; bainan nekhez hetan athera daite behar bezalako errobotlaririk[3]. Eskualduna da bakharrik sortzeak emanik hortako aski antze duena, bai besoz, bai zalhutasunez, bai begiz, bai indarrez, bai buruz eta asmuz. Eskualherria da egundainotik, eta agian bethi izanen ere pilotaren Ama.

Frantziako eta Espainiako eskualdun guziek, zer ezagutza eta esker onak ez diotzote zor jaun Anton Abadia zenari! Hark zakien hark eskualdunen ohidura zaharren balioa eta edertasuna. Zenbatenaz ere eskualduna atxikia baita bere arbasoen erlisione, mintzaia, lege, aztura, jei, joko, josteta eta libertate edo fueroeri, hanbatenaz zitzaion gorago ezartzekoa jendaiarik handienen herronkan.

Horra zerk zion gogoratu holakotan beren burua hobekienik agertzen zuteneri prima edo ohorezko garhait sarien ematea.

Sari horietan handiena erreboteko pilota partida batentzat zuen…Erreboteko plaza aski handirik ez zen tokietan, bera plekari azkar izana zelakotz, plekarieri ere ematen zioten prima ttikiagoko bat.

Bere azken egunetan gaitzi zitzaion erreboteko jokoa utzia izatea, berak horren fagoretan hainbertze egin eta. Plekako partidarik baizen ez zuten herrieri ahalkerik ez eman nahiz, bere xede eta gogoaren kontra, aintzina zohan bere emaitzetan; ez zuen hargatik uste herri aiphatu zenbeitek beren aspaldiko ohoreari hola ukho eginen zutela beren eliza bestetan beretan, eta ilhungia horrek hainbertze iraunen ziotela.

9. Curiosités de synonymie basque-japonais (1906).

(Zalduby, *Semaine de Bayonne*, Variétés, 1906-09-19/26/29; 10-6/10/13/20).

Zaldubik 1906ko uztailaren 1ean sinatua eta zazpi ataletan argitaratua da artikulu edo lan luze hau. Ez da berriz argitaratu, ustez, baina luzeegi izanez, lehen atala baizik ez dugu emango, ondoko seietan garatuko duenaren plana erakusten duena.

(I). Pendant la guerre russo-japonaise on a souvent parlé des ressemblances frappantes de la langue japonaise avec la langue basque. Ces similitudes

2 - Angeletarren.
3 - Errobotlarik.

lapurdum XI 10/12/2007 15:57 Page 34

extraordinaires d'une multitude de mots, de leur caractère et de leur physionomie ont fait l'étonnement de certains linguistes; et elles ont particulièrement intéressé beaucoup d'amateurs à qui le vrai parler basque est surtout familier et naturel. Aux sons de l'idiome nippon, à cet extrême orient séparé de nous par tant de peuples aux langages si différents de notre eskuara, nous croirions entendre notre labourdin, et cela seul est un phénomène qui mérite d'être étudié.

Or voici un travail que je présente à la curiosité des bascophiles sur ces ressemblances peut-être très fortuites du basque et du japonais, mais où je reconnais devoir décliner toute prétention à thèse scientifique.

C'est une simple collection de mots que seul probablement j'ai cueillies (sic) avec une scrupuleuse fidélité de transcription, en de nombreux documents, notamment dans un dictionnaire japonais-anglais imprimé à Tokio.

Ce sont des mots sans doute, et rien que de mots. La grammaire japonaise est loin d'être aussi savante dans ses règles et ses combinaisons que l'euskarienne. Le japonais ne compte, pour ainsi dire, ni nombre, ni genres, ni cas, ni personnes; il est l'imprécision même, mais les Nippons s'entendent quand même au moyen de leur accentuations et inflexions de voix différentes, et mêmes leurs mimiques expressives.

La langue japonaise diffère essentiellement du chinois, elle est polysyllabique et susceptible de flexions.

Dans ses ressemblances avec le basque nous avons à constater une chose absolument étrange. Etant donnés des termes identiques aux deux langues japonaise et basque, leur sens ou signification est presque toujours différente. Ainsi *abo* qui veut dire bouche en basque, veut dire *idiot* en japonais. *Aita* en basque est *père*; en japonais, c'est *Aitaï* particulier. Le basque dit *Ama* pour mère, le japonais dit *ama* pour le pêcher, arbre fruitier. Le basque *Anaia* frère, le japonais dit *anaiya* pour guide…Ces exemples tirés du commencement de la lettre *A* seulement, seront multipliés dans les premières colonnes de la terminologie ci-après. Le mot japonais *tori*, qui se prononce là-bas un peu comme le souletain *tchori*, peut être cité comme ayant la même signification d'*oiseau* dans les deux langues.

Outre le demi millier de mots qui figure dans ma nomenclature avec leur signification tant en basque qu'en japonais, il y en a des milliers qui remplissent toute une large colonne à côté, et dont l'air et le semblant seuls sont indéniablement basques, quoique n'ayant de sens qu'en japonais. Il n'y a aucune autre langue dans le monde qui reproduirait ces sons-là en dehors de l'eskuara.

De nombreux noms de la géographie du Japon et de la Mandchourie sont remarquables par leur euskarisme prononcé, et surtout par les significations adéquates de leurs sites, monts, eaux, ou natures exprimés; or combien n'en est-il pas disparu par déformation ou extinction dans le cours des siècles?

Devant cette indéniable particularité on a supposé que, bien avant les Nippons, aux temps par exemple des anciens Aïnos, quelque colonie basque ibérienne aurait habité ces îles volcaniques, à la recherche des métaux précieux recélés dans leurs cratères éteints et dans les cours d'eaux aux sables abondants en pépites d'or, raison des migrations des Basques de tous temps. *Auratae scrutator Iberus arenae*. Une nomenclature spéciale sera réservée ici à ces noms géographiques si intéressants.

lapurdum XI 10/12/2007 15:57 Page 35

Le Basque Navarrais saint François Xavier, arrivé au Japon en 1550, avait dans sa langue maternelle des éléments qui lui avaient déjà pendant dix ans servi pour les Indes. Le Japonais fut pour lui un dialecte nouveau dont les sons lui étaient encore plus familiers dès son enfance. Dans ses deux résidences préférées d'Amangutchi et de Méhako, ses succès d'orateur qui lui firent attribuer le don des langues, avaient peut-être leur grande part dans l'excellence de sa diction basque.

Des missionnaires basques envoyés au Japon se signalent aujourd'hui par leur aptitude particulière à apprendre la langue nippone et à la parler avec une correction et un naturel qui émerveillent les indigènes lettrés eux-mêmes.

Il y a trente ans, notre insigne et bien aimé compatriote Mgr Mougaburu, aujourd'hui archevêque de Tokio, arriva au Japon ignorant la langue du pays. A l'hôtel, où le Préfet Apostolique était venu le recevoir, une servante lui remit un paquet disant en son japonais rapide: "*Ori bakari da*". Il me semble comprendre ce langage, dit le jeune missionnaire; elle a dit qu'elle n'a que cela à me remettre: Hori bakharrik da; en basque: *Hori*, cela; *bakari da*, seulement es (ce que j'ai). —C'est juste ce qu'elle a dit, s'exclama l'ancien, étonné que le nouveau venu sût si bien déjà le Japonais: et cependant ce n'était là qu'une rencontre fortuite de mots communs aux deux langues.

Encore tout nouveau au Japon, le P. Lissarrague, autre basque, fait aussi merveille déjà à l'académie de Tokio, où son accent basque le fait parler comme un parfait indigène.

Quoique la présente curiosité littéraire n'ait rien de scientifique, on a jugé qu'elle pouvait être utile, et qu'elle ne devait pas être perdue. Je livre ce travail pour le peu qu'il vaut dans son insuffisance de premier jet que d'autres corrigeront.

J'ai tenu à ne pas inutiliser les rares et courtes leçons que Mgr Mougaburu, dans sa haute amitié, avait daigné me donner sur le Japon, en son dernier passage à son pays natal.

(7. atalaren bukaeran data eta sinadura) Bayonne, 1er juillet 1906).

ZALDUBY

NEURTITZAK

10. Larrosoroko kantuak

1898an argitara zituen Zaldubik *Eskualduna*n "Larrosoroko kantu berriak", airea eta musika notak zehaztuz, sinatu gabe halere (E 1898-11-25). Hemen 1911ko testua emanen dugu, aldaketa gutxi baitu 1898koaren eretzean (E 1271, 1911-8-18, "Zalduby zenak emanak duela zenbeit urthe"). Kantu hauek Larresoroko Ama Birjinaren irudiaren galtze edo ohointza eta kausitzea kontatzen dute. Gertakari horrek bertze bertso batzuk ere sortarazi zituen: "Larrosoarren agurra beren Ama Dolorosari itzuli zaiotenean" (Larrosoroarra, E 1899-3-17).

Airea: *Xoriñoa nora zohaz bi hegalez airian.* 1898ko testuan, honela zehazten du:

Aire huntan:

lapurdum XI 10/12/2007 15:57 Page 36

Choriñua nora zohaz							**bi hegalez airian**							
re	mi	ut	ut	re	si	ut	ut	re	mi	fa	mi	re	mi	ut	**(bis)**
ut	ut	fa	fa	fa	sol	fa	mi	re	sol	fa	mi	re	ut	si	
re	mi	ut	ut	re	si	ut	ut	re	mi	fa	mi	re	mi	ut	

1. Urriaren hamaseian,
Igande egunean
Baionan aphez xahar bat
egoiten den etxean,
Muthiko tzar bat sarthu zen
zakhu bat bizkarrean.
Muthikoak zer othe du
zakhu horren barnean? (1)

2. Huna zer zuen ixilka
zakhuan ekharria:
Birjina dolorosaren
antzo hunkigarria.
Amak semea daduka
altzoan hil berria.
Hura bi besoz atxikiz,
triste dago jarria.

3. Muthikoak aphezari
hauxe zion erasi:
"Zuri ekhartzeko dut hau
Habren nihaurk erosi.
—Zer derasak muthikoa?
Ez ahal duk ebatsi?
—Ez, Jauna, ez naiz ohoina;
behar nauzu sinhetsi.

4. Amerikano zen baten
puskak ziren han saltzen.
Hazpandar bat ondokotzat
utzirikan hila zen.
Saindu hau aditu nuen
Inkantean kridatzen.
Bortz liberaren oihura
Niri zautan gelditzen.

5. Aphezak muthikoari
Birjina hartzen dio;
Haren eskuetan utziz
gaizki egin bailio.
Ebatsia balinbada
Jabea kausi diro.
Bilha dabilalarikan,
ai! ager balakio!

6. Zenbeit egunen buruan
muthiko hura bera,
Bi jandarmek zeramaten
preso tribunalera.
Etxe bat arrobaturik,
gabaz sarthuz barnera.
Bertze hobenik baduen
ageriko othe da?

7. Orduan aphez xaharrak
entzuten du jendetan,
Larrosoron han daudela
Jendeak nigarretan,
Birjina dolorezko bat
galdurik egun hotan.
Norbeitek ebatsi deie
Elizako heipetan.

1 - barnean zakhu horren?

lapurdum XI 10/12/2007 15:57 Page 37

8. Aphezak mezutzen dio
hango jaunortorari,
Birjina hark dioela
hartu ebasleari.
Hek galdu dutena dela
jokha liro zernahi.
Berehala igor dezon
norbeit haren bilhari.

9. Jaunortorak igortzen du
Etxemendi harotza…
Aphez etxetan jaun hori
ez da gizon arrotza.
Beren ama dolorosa
ezagutzen du ontsa;
Hemen ikusteak berak
Hausten dio bihotza.

10. Justiziak hunen berri
ordean ja badaki;
Eta jujek ikusteko,
nahi du hau atxiki.
Ohoinak ez diro ukha;
hau bera badu aski.
Larrosoron behar dute,
aphur bat iguriki.

11. Nork erran Larrosoarrek
duketen atsegina?
Itzultzen zaiotenean
beren Ama Birjina.
Hura galduz handi baitzen
hekien bihotzmina,
Atxemanik badukete
bozkario berdina.

12. Larrosoarrak, zaudezte
xuxen zuen fedean;
Ama Dolorosa bethi
bedi zuen artean,
Handizki ohoratua
antzo hortan berean.
Zeruan ekhar zaitzazten
bere bihotz barnean.

13. Othoitz-azue berezki
zuen nahigabetan;
Etxetik norbeit maiterik
galdu duzuenetan;
Partalier har zaitzazten
bere bihotzminetan:
Kontsolaturen zarezte
Amaren besoetan.

ZALDUBY *zenak emanak duela zenbeit urthe*.

11. (Déroulèderi) (1902)

Bi kopla dira, Déroulède hil zelarik, haren omenez *Eskualduna*ko artikulu baten barnean emanak ("Déroulède", "Asteko Berriak" saila, *Eskualduna* 1399, 1914-2-6, 1. or.). Artikuluaren idazlea agian Blaise Adéma apaiza da, Zaldubiren iloba, hark idazten baitzuen "Asteko Berriak" izeneko sail hori, edo bestela agian Manex Hiriart-Urruti. Artikuluak, lehenik, Déroulèderen heriotzaren berri ematen du, gero Zaldubik Déroulèderi 1902an Donostiara eginiko bisita aipatzen du, hiri hartan bizi baitzen Frantziatik erbesteratua, eta ondotik Zaldubiren bi koplak ematen, azalpenekin. Zaldubiren koplak kokatzen dituen artikulu osoa agertarazten dugu hemen.

Déroulède

Déroulède, gizon aipatua, hil izan da joanden astean. Bihotz handikoa, koplari ederra, hainiz maitatu du Frantzia, eta bere ahalak egin frantses guziek ere maita dezaten azkarki. Haren solas guziak, eta bereziki haren koplak, hortarat zoazin.

lapurdum XI 10/12/2007 15:57 Page 38

Frantziak galdu badu bere gizonetarik khartsuena, Elizak ere galdu du katoliko bat ona, bere erlisioneaz ahalgerik ez zuena, bainan beti lañoki fededun agertu dena azken hatseraino. Aspaldian arras eri baitzen, nahiz ez zen ohatua, bera izana zen, duela zenbeit egun, elizan bere azken komunionearen egiten, eta anontzio saindua ere emanarazia zion bere buruari.

Badu hamalau urthe, nahi izan zuela egorri jeneral bat bere soldadoekin gure buruzagi framazonen kargutarik kentzerat. Hortako galdu zuen Frantziako lurra hamar urtherentzat. Bizkitartean utzi zuten sartzerat bortz urtheren buruan.

Hola Frantziako lurra galdu zuelarik, Donostiako hiria zuen hautatu egoitzatzat. Ordutik ezagutu zituen eskualdunak, eta hainiz maitatu, frango aldiz erakutsi izan duen bezala.

Egun batez —martxoaren hamarra zen 1902an— *Zalduby*, gure koplari xaharra, joan zitzaion ikusterat. Egin zuen bere baitan, frantses koplari aipatu bat hola etorria zenaz geroz Eskualherrirat, eskualdun koplari batek zor ziola agur on bat. Huna bi kopla hortako eginak eta ereman ziozkanak:

1. Frantziako gizonetan bihotzez hoberena
Lurrez gabetu baitute, zer zen haren hobena?
Gizon makurrentzat beti hobendun da zuzena.
Ez othe da goresteko hola hobendun dena?

2. Lurreko jendekietan ez bide da bihirik
Eskualdun jendea bezen libro bizi nahirik.
Derouledek, eskualdunak zer diren ikusirik,
Atsegin du bizitzerat gu ganat etorririk.

Déroulède hainiz laño agertu zen Zalduby xaharrarekin. Erran zion zenbat onhartzen zituen haren agurra eta koplak, eta eman zion liburutto bat bere kopletarik ederrenak zauzkana, hitz hauk bere eskuz izkribatu ondoan:

“Eskualdun koplariari, eskualdunen adiskide batek orhoitzapen eta milesker”.

lapurdum XI 10/12/2007 15:57 Page 39

Bibliografia

— (Adéma). 1875. 1875*an Jubilau Urthe sainduan / Bazco biharamun eta hirugarrenean / Lourdesen eta Betharramen / Escual herritic pelegrin cirenen / Orhoitzapena.* / A. M. — Baiona : André Lamaignère alarguntsa. « Escualdunen Lourdeco canticac » gehigarriarekin. 72 or.

— Adéma, Gratien. 1877. *Escualdun pelegrinaren bidaltzailea. Gr. Adéma Aphezac egina.* — Baiona : Andre Lamaignère alarguntsa.181 or..

— Adéma. Gratien. 1887. *Les Traditions du Pays basque.* Pau : Vignancour (J.-B. Daranatzen arabera, *RIEV* 2, 1908:123. Ik. Daranatz, J-B.).--*Eskualduna* 1284/1285, 1911-11-11/24.

— Adéma, Gratien. *Jeu de paume au rebot* liburuska (J.-B. Daranatzen arabera. Ik. Daranatz, J.-B.). Baiona : Lasserre.

— Adéma, Gratien. Alduderi buruzko liburuska (J.-B. Daranatzen arabera. Ik. Daranatz, J.-B.). Baiona : Lasserre.

— Adéma, Gratien. 1889. *Art Poétique basque. Eskualduna,* 1899 (atalka).--*Lapurdum*, III, 1998, 77-101).

— Adéma, Gratien. 1890. « Bibliographie". *Eskualduna* 157, 1890-5-16.

— Adéma, Gratien (Zalduby). 1894. « Eskualdun bestak ». *Eskualduna* 380, 1894-9-7.

— Adéma, Gratien (Zalduby). 1896. « Laborariak! Ez oraino etsi! Irakurrazue hau! ». *Eskualduna* 495, 1896-12-11.

— Adéma, Gratien (Zalduby). 1896. « Donibane Lohizuneko pilota partida errebotekoa ». *Eskualduna*, "Eskual-Herria" saila, 1896-7-3.

— Adéma, Gratien (Zalduby). 1897. « Donibaneko erroboteko partida ». *Eskualduna* 532, 1897-8-27, 1. or., 1. zer.

— Adéma, Gratien (Zalduby). 1898. "Larrosoroko kantu berriak ». *Eskualduna* 1898-11-25.--*Eskualduna* 1271, 1911-8-18, "Zalduby zenak emanak duela zenbeit urthe".

— Adéma, Gratien (Zalduby). 1899. « Eskual-herriko eliza bestak ». *Eskualduna* 626, 1899-6-16, 1. or., 1. zer..

— Adéma, Gratien (Zalduby). 1902. Déroulèderi 2 kopla "Déroulède" artikuluan, *Eskualduna* 1399, 1914-2-6, 1. or., « Asteko Berriak » saila.

— Adéma, Gratien. 1903. «Eskualzaleen bilzarrean, 1903ko buruilaren 10ean, Adema Zalduby kalonjeak, eta bilzarraren buruzagiak egin duen hitzaldia. *Eskualduna* 847, 1903-09-18.

— Adéma, Gratien (Zalduby). 1906. «Curiosités de synonymie basque-japonais ». *Semaine de Bayonne*, Variétés, 1906-09-19/26/29; 10-6/10/13/20.

— Daranatz, Jean-Baptiste. 1908. « Le chanoine Adéma ». *RIEV* 2:121-124.